




ARRASATE

PRESS


ARKOTXA UGALDE LOURDES (UDAL ETX)  
HERRIKO PLAZA  
ARRASATE  
0 9



# Udaberrian aldaketa ugari

ARTEszena-k aurkezten du

# MEPHISTO



**Martxoak**

**24**

**OSTIRALA**  
(Euskaraz)

**25**

**LARUNBATA**  
(Gaztelera)

**Gaueko 10.30etan**  
**Amaia Antzokian**

**Sarrera: 700 PTA**  
**Gazte Txartelarekin: 500 PTA**



Arrasateko Udala  
Kultura Saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia

# Jainko izan nahiaren ametskeria

**K**ontsumokeriak zaborra ugari, kutsadura eta hondamendia dakarkio Naturari eta Gizarteriari.

Gizarte kontsumistak "gauza eta gailu" asko sortu eta behar ditu. Zenbat eta "zibilizatuagoa" hainbat eta kontsumogai ugariagoak eduki eta erabiltzen ditu.

Ugaritasun eta zor-salmenta munduak -guk asmatu eta eginiko mundua denez- ez du problemarik produktu berriak sortu eta jendeari eskuratzeko. Gizarte kontsumistak funtzionatzen du, itxuraz behintzat ondo ibili ere. Egia da ... zabor eta kutsadura dexente sortzen ditu, eta ez daki zer egin hondakinekin; baina, tira, lepoa altxa eta aurrera.

Nondik orain gure kezak? Gu baino lehenagokoa den Naturak -ez guk sortuak bere legedia eta mandatuak inposatzen ditu; ezin dugu narrazkeria eta kapritxoak erabili, hondamendi zigorra baitu.

Burutsuak garenez, -nundi jaso ote dugu dohai pentsalari bitxi hau?- fisika eta biologi lege batzuk ikasteko gai izan gara eta lege horien arteko erlazio berriak sortuz, izadia "zertxobait" maneiatzen eta kontrolatzen ikasi dugu; baina ez gaituzen engaina, natur-legeak ez ditugu aldatu, ez gara Jainkoak, erlazio berriak sortu besterik ez dugu egin.

Bere zientzia, teknika eta asmakizun berriekin, harro, Jainko sentizen hasia zen gizakia, eta edozer gauza erabakitze eta egiteko askatasuna zuelakoan, inolako errespeturik gabe erabili du Natura, gehiegikeriaz jokatu du eta orain kontuak:

Natura gaixo dago, ozono azalera zulatu zaigu, lurralde zabalak giroa aldatu eta desertizazioa nagusituz doa, itsasoa eta errekek kutsatu eta hiltzen, izurrite berriak sortuz, abere, hegazti eta arrai espezie asko desagertze bidean, eta abar, eta abar ... Greenpeace, Eki, Ekolojistak, ... S.O.S.

Eta gizakiarekin zer? Giza-aberea ugarituz doa eta urtez bizia luzatuz; baina giza-pertsona, giza-balorez jantzita, etikaz eta solidaritaz hornituta, helburu eta mugagabetasunetara irekia, ez dakit ez ote dagoen desagertzear. S.O.S.

Naturaren atal garenez, gure fisiko-biologiko "mandatuekin" obediente izaten ikasten hasita gaude; kolesterolak, diabetesak, azido urikoak, eta beste mila gauzek, ez digute barkatzen, obedentzia besterik ez digute onartzen. Jokua garbi dago: natur-legeak onartu edo "gure kapritxoak"; ondorioak, osasuna edo hondamendia.

Baina gizakia ez da gorputz-osasuna bakarrik. Gizakia ez da "zerbait", "nor-bait" baizik. Eta "nor" horren osasuna geure buru- bihotzetan ezarria dagoen legedi etikoa eta "mandatuen" arabera bizitzean datza. Giza-zaborkeri gehiegi ari gara produzitzen eta gizartera botatzen. Noiz arte?... S.O.S.

Noiz ikasiko dugu geure gizaki-natura onartu eta errespetatzen? Naturarekin ezin dugu Jainko bezela jokatu ez garelako Jainko, ta geure buruarekin bai?

**JOSE MARI ASTIGARRAGA**  
(SAGARRAGA)

**GATZAGAN,**  
**ERDI ERDIAN...**

**ZUHAITZ**  
**jatetxea**




**Memesa**  
**79 42 22**



Aldizkari honek Arrasateko Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurilaritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du

• **ARRASATE PRESS** •

**Argitaratzailea:** ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)  
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

**Laguntzailea:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardo Kortabarria. **Kazetariak:** Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Milder Egües. **Hizkuntz arduraduna:** Arantza Ozaeta. **Publizitatea:** Jasone Mendizabal eta Alberto Garro (77 08 15). **Administrazioa:** Ikerne Altube eta Itsaso Errasti (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Arantza Loidi, Mikel Irizar, Blanka Jauregi, Esther Balanzategi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karmele Perez, Sorginak, Kopi, Danel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Iker Letona, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Rafa mungia. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. Tirada: 5.500. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.  
ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

**Azaleko argazkia:** Beñardo Kortabarria

Udalatx

**D**uela gutxi nire ahotik aterada (ATBn eta Arrasate Press-en) arrasatearrok (eta gainerakoek ere) UDALATX idatzi beharko genukeela maizenik UDALAITZ forman agertzen den mendi zoragarri horren izena. Eta hala da, nik ere hori proposatzen dut euskara idatzirako. Eta, batek edo beste horren gainean komentarioren bat edo beste egin didalako, azalduko dut zergatik.

(Bide batez esan ahozko-rako nik ez dudala ezer proposatzen; izan ere, ahoz balio duena jendeak darabilena da. Eta hemen jendeak dabilena UDELATX da, oker ez bana-go. Badakit kaleko askok UDALAITZ esaten duela, baina nekez entzungo duzue hori, esaterako, Udalatx azpiko auzoan. Eta kalean bertan ere jakin nahi nuke zertan den kontua. Izan ere, nire lagun batek (portzierto, Koska, zelan bizi gaittük?) UDALAITZ esaten badu ere, bere aitak ez ei du hala esaten...)

Itzul gaitzen harira. Hortaz, idatzian UDALATX. Horra arrazoi batzuk.

1) Dokumentuetan hala idatzi izan da: Garibay-ren duela 424 urteko "esta notable y grande peña (...) se llama UDALACHA"-tik gaur arte. Idazkera horrek jendearen ahozkeraren salatzen digu (garai bateko UDALATX ahozkeraren fonetika lege batez UDELATX izatera pasatu delarik).

2) Arrasateetik urten barik

baditugu beste leku-izen batzuk ATX horrekin esan eta idazten ditugunak: ATXABAL, ATXABALPE, ATXONDO, ARTIKULATX, SANTA AGEDATX (bertakook "Santaatx" esaten duguna). Har dezagun, adibidez, ATXABALPE. Izen horrek lehen osagaia ATX dela onartzen badugu (Mitxelena ere hala uste du bere Apellidos vascos ezagunetan), zergatik ez da Aitzabalpe idazten, UDALAITZ-en antzera? (Hor beste auzi bat litzateke ATXABALPE) izen hori ongi jarria dagoen futbol zelaia izendatzeko, baina beste baterako utzi beharko dugu...)

3) Beste herri batzuetan (bizkaieraren eremu ia osoan) ere ATX osagaiaz idazten dira toponimoak: ATXONDO, ATXARTE, USAKOATXA, UNTZILLATX...

4) Norbaitek batasunaren aurka ari naizela uste badu, jakin beza Euskaltzaindia bera leku-izenen normalizazioan horrelako berezitasunak gordetzearen aldekoa dela.

Eta amaitzeko, berdintsu jokatu beharko genuke beste hauek modukoekin ere, hala direnean: URIBARRI (ez Hiriberri), ARRIAREN (ez Harriaran), AXPE (ez Etxeberrri), UARKAPE edo UGARKAPE (ez Uharkape/Uherkape), URIARTE (ez Hiriarte), eta abar.

**TXIPI ORMAETXEA**

Intsumisioa

**U**rtaro berrian sartuta gaude, udaberrian alegia. Batzuentzat urtaro emankorra eta argitsua, insumisoentzat ordea iluna, kode penal berria orain idatzita dagoen bezala Espainiako korteeetan aurrera ateratzen bada. Kode penal berri hau gizarteari azaltzeko, Kakitzat koordinadora antimilitaristak kanpaina berri bati eman dio hasiera. Esan beharra dago kode penal berri honek arlo asko ikutzen dituela (gaztetxeak, okupak etab.) eta ez modu onean. Lege hau atzerakoia dela gai askotan aipa genezake. Gu insumisioaz arituko gara. Insumisioa delituzat hartzen du eta aurrakusten dituen zigorrak hauek dira:

- Gartzela-zigorra bi eta hiru urte artekoa.
- Ezgaitze (inhabilitazioa) osoa.

Hau da lan egiteko eskubidea ukatuko digute, ez administrazioan bakkarik, baita lantegi arruntetan ere.

- Beka eta langabezia-laguntzak jasotzeko eskubidea galeraziko digu.

- Zigor ekonomikoak.

Hau honela izanda, talde politikoei eskatzen diegu atzera bota ditzatela kode penal berriko proiektuko artikulua horiek, eta gizarteari mezua luzatzen diogu parte hartu dezan antolatuko diren ekintza guztietan. Adi egon!

Lege berri hau insumisioaren borroka geldiarazteko egina dago, baina ez dute lortuko. Armadarik gabeko gizartea da gure helburua, eta horretarako denon parte hartzea behar dugu.

**ARRASATEKO KAKITZAT**

Zuzendari berria

Zuzendari berria dugu ARRASATE PRESSEN, Beñardo Kortabarria antzuolarra. Gure aldizkaria irakurtzeko ohitura duzuenok, ondo gogoratuko duzuen bezala, Beñardo orain pare bat urtera arte kazetari lanetan aritu zen bertan. Ardura handiagoa izango du bada hemendik aurrera, ongietorria hala ere!

Batzuk etorri eta beste bazuk joan: alde batetik, Arantzazu Loidi, azken urteetako ARRASATE PRESSEKO zuzendaria eta bestetik Txos Azurmendi, maketatzailea. Biei eskerrik asko egindako lanagatik eta zorte on!

**ARRASATE HOTELA**



Biteri, 1 Tfnoa: 79 14 16

**Txitxinpe**

Berezitasunak:  
Kafea, ardoa, urdaitegia,  
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33  
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

**"PAL"**

burdindegia,  
brikolage  
eta tresneria


Uribarri etorbidea 3,  
Tfnoa: 79 31 99

**GORKA**

ILEAPAINDEGIA  
SOLARIUMA

Ferrerias, 35 ARRASATE  
Tfnoa: 77 13 78

# Ikusi zenuen infantaren ezkontza?



**Aitor Agirre  
Langabezian  
(21 urte)**

Ez baina gero informatiboetan ikusi nituen ezkontzako irudiak eta fartsa bat iruditu zitzaidan. Komunikabideek jarraipen handiegia eman diote gertakizun horri.



**Andres Armanzón  
Jubilatua  
(65 urte)**

Ikusi nuen apur bat eta Rocio Juradoren bano politagoa izan zela iruditu zitzaidan. Gainera, printzesaren ezkontza seguruenik Juradoren bano gutxiago kostatu da.



**Ana Unzalu  
Etxekoandrea  
(47 urte)**

Apurtxo bat baina oso gutxi, ez nintzen etxean izan eta. Printzesa nahiko guapa zihola iruditu zitzaidan, oso ondo makilatuta zegoen.



**Jesus Mari Eriz  
Udaletxeko langilea  
(37 urte)**

Apenas, oso gutxi. Estatu komunikabideak pasatu egin dira, hemengo komunikabideek behintzat ez diete hainbesteko jarraipena egin.



**Maria Fraile  
Etxekoandrea  
(44 urte)**

Errekauek lehenago egin nituen eta zati bat ikusi nuen. Gustatu zitzaidan baina infanta ez zegoen oso elegante.



**Fran Fernandez  
Lagun Aroko langilea  
(30 urte)**

Bi minutu bakarrik, momentu itsusia gainera, infantari beloa altxatu ziotenekoa. Nire ustez ezkontzari buruzko informazio larregi eman digute.



**Sonia Rodriguez  
Ikaslea  
(17 urte)**

Zapatuan ez nuen ikusi baina hurrengo eguneko informatiboetan bai zerbait. Ondo iruditu zitzaidan, printzesaren soinekoa polita zen.



**Mari Carmen Rodrigo  
Fagorrekoko langilea  
(50 urte)**

Apur bat bai. Soinekoa polita zen, ondo zegoen. Boda gertutik ikustearren ez nuke sevillarrek moduan gaupasarik egingo.

Elektroinjekzio  
Zerbitzua



**ARRASATE KONPONKETAK**

Zaldispe kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41  
ARRASATE

**Lore**

Lurrindegia

Olarte kalea, 10 ARRASATE  
Tfnoa: 79 52 50



**BEHARREZKO TELEFONOAK**

**Eritxeak**  
 Arrasateko Eskualde-Ospit. ....79 53 00  
 Igalatorioa .....79 05 00  
 Santa Agedako Ospitalea  
 (gizonak) .....79 39 00  
 (emakumeak) .....79 44 11  
 Buru osasunerako zentrua .....79 90 11

**Gurutze gorria**  
 Bergara .....76 55 76

**DYA**  
 Antzuola .....76 62 91

Anbulatorioak  
 Arrasate (Larrialdiak) .....79 13 57  
 (Txanda hartzeko).....77 03 46  
 77 07 21  
 Oñati .....78 08 52  
 Eskoriatza .....79 98 58  
 Aretxabaleta .....79 74 58  
 Aramaio .....(945) 45 51 16

**Anbulantziak**  
 Gipuzkoako ambulanziazki .....45 87 44

**Udaltaingoa**  
 Oñati .....78 04 11  
 Bergara .....76 14 69  
 Arrasate .....79 14 39  
 Aretxabaleta .....79 10 52  
 Eskoriatza .....79 03 22

**Ertzaintza**  
 Arrasate .....79 71 99

**Suhiltzaileak**  
 Udal taldea .....79 09 00  
 Udal taldeko suhiltzaile burua .79 20 72  
 Zubillagako Eskualde-Parkea .78 28 00

**Matxurak**  
 Urak (udal zerbitzua) .....79 09 00  
 Elektrizitatea (Iberduero) .....12 01 62  
 Gasas .....900 40 05 23  
 79 78 44  
 79 76 78

**Garraioak**  
 Taxiak .....79 12 22  
 P.E.S.A. ....79 14 19

**Hirugarren adinekoentzako zentruak**  
 Iturbide Egoitza .....79 72 11  
 Abaroa jubilatuen egoitza .....79 81 57  
**Kontsumitzailearentzako informazioa**  
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak .....79 87 77  
 KIUB-OMIC .....79 51 55  
**Monterrongo liburutegia**  
 Monterron.....77 01 05

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Ostirala 24**

Morales. San Andres auzoa.

**Larunbata 25**

Azkoaga. Ferrerias kalea.

**Igandea 26**

Español. Iturriotz kalea.

**Astelehena 27**

Corcuera. Musakola auzoa.

**Astearte 28**

Irizar. Erguin auzoa.

**Asteazkena 29**

Amezua. Santamaina auzoa.

**Osteguna 30**

Ruiz. Maala kalea.

**24 OSTIRALA**

• **ZINEA**  
 "Traición al jurado" 7etan eta 10etan.

• **ANTZERKIA**  
 "Mephisto" antzezlanaren Arteszena antzerki taldearekin, Amaia antzokian gaueko 10.30etan, euskaraz. Sarrera: 700 pta. eta Gazte Txartelarekin 500 pta.

• **KONTZERTUA GAZTETXEAN**  
 W.C. Noise eta Dick Cheese taldeen kontzertua Gaztetxean gaueko 9.30etan.

**25 LARUNBATA**

• **ZINEA**  
 "La muerte y la doncella" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

• **ANTZERKIA**  
 "Mephisto" antzezlanaren Arteszena antzerki taldearekin, Amaia antzokian gaueko 10.30etan, gazteleraz. Sarrera: 700 pta. eta 500 pta. Gazte Txartelarekin.

• **34EAN JAIOTAKO KINTOEN BAZKARIA**  
 Eguerdiko ordubatean Frantziakotarraren elizan meza. 2.30etan Udalpe elkartearen bazkaria.

• **HIKA IKASTAROA**  
 Hika berba egiten ikasteko ikastaroa, arratsaldean Aretxabaletako Udal-Euskaltegian. Irakaslea: Joseba Urkia. Loramendi Kultur elkartearen antolatuta.

• **KIROLDEGIKO BILERA**  
 Musakolako eta Iturripeko kiroldegietan frontoiak, futbol eta squasheko kantzak alokatzeko interesatuta dauden pertsonen bilera izango dute goizeko 11etan, Musakolako bulegoan.

• **XABIER PEREZ DE ARENAZARI OMENALDIA**  
 Xabier Perez de Arenazari omenaldia. 4.30etan rugby partidua Garagartzan. 7etan ekitaldi politikoa, dantzariak eta lore eskaintza Herriko Plazan. Ondoren manifestazioa.

**IPUIN TAILERRA**

AEDk ipuin tailerra jarriko du abian. Ikastaroa idazteko zaletasuna duten 15 urtetik gorakoei dago zuzenduta. Larunbat goizetan bilduko dira AEDn (Pablo Uranga 4) printzipioz bost astez. Interesatuak AEDra deitu, 77 12 28 telefonora.



**ERAKUSKETA**

3. munduari buruzko kartelen erakusketa Monterronen martxoaren 27tik apirilaren 2ra arte. Ordutegia: egunero 6etatik 8ak arte eta larunbat eta jaiegunetan 12etatik 2etara eta 6etatik 8ak arte.

**26 IGANDEA**

• **ZINEA**  
 "La Muerte y la doncella" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

• **BIZIKLETA MARTXA HIRUGARREN MUNDUAREN ALDE**  
 Bizikleta martxa %07aren alde, Sebero Altube plazatik eguerdiko 12etan, Hego-Amerikako folklore talde baten animazioaz. Harreman, Arrasateko Hirugarren mundu taldeak antolatuta.

• **ZIKLOTURISTEN IRTEERA**  
 Arrasateko zikloturisten irteera. Ibilbidea: Arrasate, Kanpazar, Elorrio, Matiena, Garai eta Arrasate, 46 kilometro guztira. Irteera goizeko 10etan Monterronen.

**MENDI IRTEERA**

**Besaide mendizale elkarteak Ibaneta-Urkulu eta Orbaizetara irteera antolatu du apirilaren 2rako. Izenematea martxoaren 28, 29 eta 30ean egin daiteke arratsaldeko 7.30etatik 8.30etara Besaideko egoitzan. Prezioa: bazkide nagusiek 1.000 pta., gazteek 500 pta. bazkide ez diren nagusiek 1.300 pta. eta gazteek 800 pta.**

**27 ASTELEHENA**

• **ZINEA**  
"La muerte y la doncella" 7etan eta 9.30etan.

• **ODOL-EMATEA**  
Arrasateko anbulategian arratsaldeko 4.30etatik 8ak arte.

**IKASTAROAK**


"Heldutze frogak egiteko prestakuntza" ikastaroa. Asteleheneretik ostegunera arratsaldeko 6.30etatik 8.30etara, martxoaren 20an hasita. "Altzariak berreskuratzeko eta berrezartzeko" ikastaroa. Astelehenero arratsaldeko 6.30etatik 9etara. Famili eta Gizarte-hezketarako Zentruak antolatuta.

**PINTURA ERAKUSKETA**

**M. Quevedo eta L.J. Arrietaren** pintura erakusketak **Harresi aretoan martxoaren 24tik apirilaren 2ra. Orduetgia: egunero 6etatik 8etara eta larunbat eta jaiegunetan 12etatik 2etara eta 6etatik 8etara.**

**URAZPIKO KIROLA**

Urazpiko kirola ikasteko ikastaroa Bergarako Agorrosin igarilekuan apirilaren 1a eta 8an, goizeko 9etatik 12.30etara. 14 urtetik gorakoei zuzenduta. Kopuru mugatua, gehienez 15 lagun. Prezioa: 1.500 pta Deba bailarakoentzat eta 2.000 bailaratik kanpokoentzat.

**28 ASTEARTEA**

• **ZINEA**  
"La muerte y la doncella" 7etan eta 9.30etan. (Ikuslearen eguna)

• **ODOL-EMATEA**  
Arrasateko anbulategian arratsaldeko 4.30etatik 8ak arte.

• **DROGOMENPEKOTASUN TAILERRA**

San Andres Herri-eskolan arratsaldeko 6.30etatik aurrera. Txatxilipurdik antolatuta.

**ARRASATEKO NESKEN FUTBITO TXAPELKETA**

13 urtetik gorako emakumeek har dezakete parte. Larunbat edo igandetan jokatu da txapelketa Ferixalekuan, apirilaren 1a edo 2an hasita. Baldintzak: talde bakoitzean federatu bat gehienez, gutxienez bost jokalarik taldeko eta prezioa 2.000 ptakoa. Izena emateko 77 12 28 zenbakira deitu edo AEDra joan, epea martxoaren 28an bukatzen da. Txapelketa AEDko gazteek antolatu dute, Arrasate Kirolak eta Kajoj tabernaren laguntzaz.

**29 ASTEAZKENA**

• **ODOL-EMATEA**  
Arrasateko anbulategian arratsaldeko 4.30etatik 8etara.

• **HITZALDIA ADIMEN URRI-TUEN GAINEAN**

Gaia: "Gurasorik ez duten adimen urrituen etorkizuna". Bergarako Kultur-Etxean arratsaldeko 6etan.

**30 OSTEGUNA**

• **ZINEA**  
"Leyendas de pasión" 7etan eta 9.30etan.

• **ZINE-KLUBA**  
"El lado oscuro del Corazón" Amaia antzokian gaueko 10.30etan. Sarrera: 300 pta. eta Gazte Txartelarekin 250

• **ZUTIKen BILERA**  
Gaia: "Udal-Hauteskundeak", arratsaldeko 7.30etan Jai Zale elkartearen Zutikek antolatuta.

• **ARKOKO BATZAR OROKORRA**  
Monterronen, arratsaldeko 6.30etan lehen deialdia eta 7etan bigarrena.

• **DROGOMENPEKOTASUN TAILERRA**  
San Andres Herri-eskolan arratsaldeko 6.30etatik aurrera. Txatxilipurdik antolatuta.

**XIII. ARRASATE-OÑATI LASTERKETA IRUDI-LEHIAKETA**

Maiatzaren 14ean LAIXAN elkartearen eskutik eta "Jantzi Kirola Euskaraz" lelopean hirugarren aldiz burutuko da Arrasate-Oñati herri lasterketa eta parte hartzaileek erabiliko duten kamisetarako irudi berria aukeratzeko lehiaketa antolatu da. Baldintzak: kamiseta zurien bizkarrean ipiniko den irudiak hiru kolore (gorria, berdea eta beltza) izan behar du; "Jantzi Kirola euskaraz" lelopekin jokatu behar da; lanak martxoaren 31a baino lehen Laixaneko egoitzan aurkeztu behar dira, kartazal baten irudia ezizinarekin eta beste batean egilearen datuak sartuz. Egile bakoitzak nahi adina irudi aurkez ditzake; saria 15.000 ptakoa izango da.

“Gaur egun Gipuzkoan lanean ari den erraustegi bakarra Arrasatekoa da. Orain gutxira arte erakundeetan erraustegi perfektoa zela esaten zitzaigun, ingurugiroari dagokionez bat ere arazorik gabea. Gaur egun, berriz, Jorge Letamendiak, ingurugiroko diputatu gipuzkoarrak aitortzen du Arrasateko erraustegiak urtebetean bakarrik erraustegi berri batek bere bizi guztian baino hondakin toxiko gehiago sortzen duela”.

**Pello Landa**, EKI talde ekologistako kidea, *El quiosco de la Rosi* irratsaioan



**Gipuzkoako Herri Irratia**

“Niretzat denboraldi hau frustrantea da... partidu bakoitzean jokalaria bat edo bi kanpora... baina inportantea da gaur ez dudala ikusi laguntasunik futbol zelaian, moralik ez dut ikusi eta hori gauza tristea da, amorrurik ez dago... Gauzak doazen moduan nik entrenadorea aldatuko nuke, Sixtok berak baino gehiago agintzen du eta”

**Jose Luis Amozarrain “Paiko”**, Mondrako jarraitzailea. *Mondragol* saioan.




“Guk nahi baino txartel gehiago daukagu, ez dago dudarik... jokalariek badakite hori eta beraientzat erresponsabilitate handia da hori... Nedza da entrenadorea eta ez Sixto, Sixtok hitzegiten du oraindik Nedzak erdaraz zenbait gauza esateko arazoak dituelako... lesioak eta txartelak ikusita uste dut egon behar genuena baino gorago gaudela une honetan.

**Jose Luis Ezkurra**, Mondrako presidentea *Mondrasport* saioan.



## Zergatik da garrantzitsua etxea alokairuan dutenek etxebizitzaren erroldan izena ematea?

az onartu zen legearen arabera, alokairu zaharren legeak gaurkotzeko, alokairuan daudenen diru sarrerak izan behar dira kontuan. Hau da, alokairuan bizi direnek Estatuak ezarritakoa baino gutxiago irabazten badute, etxearen jabeak ezingo du errenta gaurkotu edo garestitu. Ezintasun hori konpentsatzeko, Estatuak 96tik aurrera konpentsazio fiskalak emango dituela agindu du eta hori jasotzeko, etxebizitzaren erroldan izena eman behar dute egoera horretan dauden jabeak. Errenta gaurkotu ezin dutentzat oso garrantzitsua da martxoaren 31a baino lehen izena ematea etxebizitzaren erroldan, bestela arazoak izango dituzte eta.



**Jesus Markaide**

*Deba Garai inmobiliariako artekaria*

Nik neuk, gainera, etxea alokairuan duten guztiei gomendatuko nieke hori egitea zeren beharbada orain errenta gaurkotuko dutela uste badute ere, agian hemendik denbora batera alokaltzailearen egoera aldatu egin daiteke eta.

Erroldan izena emateko inprimaki batzuk bete behar dira eta ondoren hiriburuetan dauden Obra Publiko, Garraio eta Ingurugiro Ministeritzetara eraman. Hala ere inprimakiak hartzeko ez da bertaraino joan beharrik, gure bulegoetan, adibidez, eskura daude eta.

Lehen esan bezala, alokairuen lege berria iaz onartu zen baina konpentsazio fiskalaren puntua gero gehituko denez arazoak gerta daitezke. Hori ez gertatzeko, garrantzitsua da lehenbailehen alokaltzaile guztiak esandakoaren berri izatea eta etxebizitzaren erroldan apuntatzea.

## ONGI ETORRI, konpainia onean egoteak badu abantailik.



Otalora Lizentziatua, 5

20.500 ARRASATE

☎ 79 70 67

- ☛ Bizitza
- ☛ Etxebizitza
- ☛ Autoa
- ☛ Etabar



**Biltegien inaugurazioa**

Deba Garaiko Mankomunitateak, Bergaran eta Oñatin hondakin alternati- boetarako zabaldu dituen biltegiak inauguratu ziren osti- ralean. Inaugurazio ekital- dia Arrasateko Mankomuni- tatearen egoitzan egin zen eta bertan ingurugiro saileko hainbat arduradun bildu zen besteak beste. Ekitaldia buka- tu eta gero, berriz, hondakin biltegiak eta AKEIko erraus- tegia ikustera joan ziren. Europako Ekonomi Elkar- tearen aginduz, zaborte- gia itxi egingo da eta itxura denez, Tolosan labe handi bat zabal- tze- ko asmoa dago, bertan Gipuzkoa osoko zaborrak erretze- ko.

**Kargu barik aske**

Audientzia Nazionalen deklaratu ondoren, kargu barik aske utzi zituzten Marian Uribe eta Imanol Gorostidi ostegun arratsal- dean. Bi lagun hauek bi egun lehenago atxilotu zituzten Arrasaten.

**3. munduaren alde**

“Herri pobreekin elkar- tasuna” lemapean, kanpaina hasi zuen Harremanek, Arra- sateko hirugarren mundu tal- deak. Martitzenean, taldeak antolatutako mahainguruan bakarrik IU eta EA alderdi- ko zinegotziek parte hartu zuten, nahiz eta zinegotzi guztiak gonbidatuta izan. Arrasateko Udalak aurre- kontuen %0,2 bideratzen du hirugarren mundurako eta Harremaneko kideen iritziz,



**Enpresa berritzaileen zentrua herrian jartzearen alde**

Eibarko Enpresa Berritzaileen Zentrua (CEI) inau- guratzerakoan, Guillermo Etxenike, Ekonomia diputa- tuak, zentru hori Eibarren jarrita nahikoa dela adierazi zuela eta, Deba Garaiko sindikatuek prentsaurrekoa eman zuten astelehenean. Sindikatuen ustez aspalditik dago horrelako zentru bat Arrasaten jartze- ko asmoa eta oso garrantzitsua, presazkoa eta beharrezkoa da lehenbaile- hen egitea. Sindikatuek adierazi zuten, toki faltagatik azken urteetan herritik kanpo 27 enpresa sortu ditu Saiolane- k eta orain zazpi proiektu garatzeko tokia bilatzen ari denez, proiektu horiek kokatzeko zentrua eraikita lan- postuak sortuko lirateke herrian.

Arrasateko Enpresa Berritzaileen Zentroa Cerraje- raren pabiloietan kokatuko litzateke, enpresak garatu eta enpresa ekimenak bultzatzeko helburuarekin. Sindika- tuek esandakoari erantzuteko, Etxenike jauna prentsa- urrekoa ematekotan zen atzo eguardiz Arrasaten.

hori ez da nahikoa. Bestalde, elkar- tearen proiektuen berri eman eta pobrezia- ren inguruan herria sentsibilizatzea dira kanpaina horrekin Harrema- nek lortu nahi dituen helbu- ruak.

**Hezibideren Batzar Orokorra**

Deba Garaiko irakaskun-

tza kooperatibak batzen dituen elkar- teak, Hezibide- k, urteko Batzar Orokorra egin zuen asteazkenean. Iazko urtea, iraga- na gaingitu eta bide berri batetik abiatzeko ahalegina izan da Hezibiderendako. Datozen urteei begira, berriz, arlo pedagogikoaren jarrai- pena egitea izango da helbu- rua eta horretarako sortu da talde pedagogikoa. Taldearen

asmoak mediateka antola- tzea, euskararen erabilpena bultzatzea eta ikasleei atze- rriko hiru hizkuntza ikasteko aukera ematea izango dira.


**Ehiza eta Arrantza elkar- tearen batzarra**

Batzar Orokorra egin zuen asteazkenean Leintze elkar- teak, ehiza eta arrantza elkar- teak. Batzarraren hasieran, diru kontuen berri eman eta aurreko akten onarpena egin zen besteak beste. Ondoren, lehendakari berriaren izena eman behar zen ezagutzera baina lehendakariarik aur- keztu ez denez, momentuz kargu hori bete barik geratu da. Azken hamalau urteetan Heriberto Altuna izan da lehendakaria.

Jaiotzak
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Mikel Atxa Kortabarria. Mar- txoaren 7an.</li> <li>• Izar Gorroñoigoitia Uriba- rren. 14an.</li> <li>• Irati Nafarrate Usandizaga. 14an.</li> </ul>
Ezkontzak
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Felipe Altuna Berastegi eta Maria Lurdes La Fuente Bru- ña. 11n. Elizaz.</li> </ul>
Hildakoak
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Sabina Leibar Sagasta. 14an. 85 urte.</li> <li>• Hermenegildo Varona Gómez. 17an. 79 urte.</li> <li>• Angel Zabalo Urtecabo. 17an. 80 urte.</li> <li>• Ignacio Zuazubiskar Arri- zabalaga. 16an. 85 urte.</li> <li>• Juana Ojea Larrañaga. 19an. 68 urte.</li> <li>• Catalina Romero Sanchez. 17an. 73 urte.</li> <li>• Manuel Iturriaga Murua. 20an. 76 urte.</li> </ul>

**TXOKO TABERNA**  
*Eure berezitasunak pintxo eta mokau gozoak*

**DEBA GARAIA**  
 Inmueble eta Finantza Agentzia  
**Toki ezin hobean dagoen negozioa salgai.**  
 20 urte baino gehiagoko esperientzia duen negozio ziurra eta errentagarria. 28 milioi PTA. Informazioa alde- z aurretik eta interesa justifikatuz gero.  
**Tfnoa: 77 14 27.**  
**Rosa Bergara**



\* MIKEL IRIZAR

## Bakea hurbilago?

**B**ilboko Bake Konferentziaren ostean, ezinezkoa da oraindik ondorio sakonik ateratzen hastea. Eta ez bakarrik denbora gutxi igaro delako. Han egindako lanaz ezer gutxi daki bertan egon ez zenak, hain izanda giroa serioa eta zuhurra. Agian, horixe da oraingoz eta kanpotik esan dezakeguna: serio aritu direla lanean han bildutakoak.

Konferentziari buruzko kanpoko giroan ere nabarmenak izan dira jakinmina eta errespetua, bai komunikabideen eta bai herritarren aldetik. Barruan ez egotea aukeratu zutenek, berriz, ez dute lortu barrukoan lanak izan duen oihartzuna, kontrapuntu gisa izan ez bada.

Eta orduan, bakea hurbilago ote dago? Txarra litzateke Konferentziaren garrantzia puztutzen hastea, kanpaibueltak joka, eta txarra izan duen garrantzia ez aitor-

tzea eta etsipenean erortzea. Bilbon izan den ordezkari irlandar bati irakurri nion hango prozesua dagoen puntura eramateko bost urte behar izan dituztela elkarriketan. Erreferentzia horrekin nik esango nuke bakea oraindik urrun dagoela, baina Bilbotik bueltan zeozer hurbilxeago.

Baina, zerk egin du posible lehen urrats hau? Egia da bertaratu diren alderdiek ausardia eta borondate ona erakutsi dutela. Egia da Elkarriko antolatzaileek asmatu

.....  
*“Nik esango nuke  
 bakea oraindik  
 urrun dagoela,  
 baina Bilbotik  
 bueltan zedozer  
 hurbilxeago”*

egin dutela parafernalian eta moderatzaile lanetan. Akaso sarritan aipatzen diren baldintza objektiboak ere egokiak izango ziren. Nik, hala ere, ez dut uste Bilboko posible izango zenik azken urteotan euskal gizartean garatzen ari den bakezaletasunaren eraginik gabe. Oraindik mila molde eta mila ahots dituen sentimendu hori izan da niretzat Bilboko protagonista nagusia. Hiritarrok bultzatu ditugu alderdiak mahaiaren bueltan jartzera eta geu gauden gaur pozik esperantzari lehio bat zabaldu omen zaio-lako.

Bilboko Konferentziak zerbaiten abiapuntu itxura hartu duenik ezin uka. Akaso hurrengo urratsez ez gara laister enteratuko. Publiko gabeko elkarrizketak emankoragoak izaten omen dira. Baina aurrerantzean ere guztion bultzada beharko da trenak ez dezan deskarrilatu. Nire lagun batek sarritan aipatzen duen esaldia datorkit gogora: “Ikaslea prest dagoenean, orduan agertzen da irakaslea”.

Jarri gaitezen prest, bakea ager dadin.

\* ELKARRIKO KIDEA

## USTEAK USTE

### MISTERIOA ARGITUTA

**Urteroko alergía, zuhaitzen loretzeta, hegaztien etorrera, bihotzaren samurtzea edo eta odolaren berotzea baino berrikuntza gehiago ekarri ditu berarekin aurtengo udaberriak. Izan ere, aste honetan argitu da udal-hauteskundeei begira alderdi politikoek herritar zein kazetariori lau urtetik behin planteatzen dizkiguten misterioa, nortzuk alkategairako?**

**Herritarrek, misterioa argitu nahi izan dutenek behintzat, kazetariak irekitako bideetan aurrera egin edo alderdiko herribatzerdean lanean ari den norbait mozortzearen artean aukeratu behar izan dute, edanaren eraginez mihia arindu zitzaielakoa. Alferrik seguruen!**

**Berriemaleok, berriz, Sherlock Holmes-enak egiten ibili gara, futbol kinieletan baino konbinaketa gehiago aztertuz, jasmoen arrastoari jarraituz... izenen berri izan dugunean, “jakina Watson maitea” bezalako esaldiak botatzeko.**

**Orain, begien aurrean, bigarren misterioa: nor alkate? maiatzaren 29an erantzuna.**

BEÑARDO KORTABARRIA

**MILARIOK**

**Taberna-jatetxea  
Kafetegia**

- Eguneroko menua eta kartako menua
- Bazkari azkarrak, pizzak, hanburgesak, sandwichak,...

Prezio guztiz eskuragarriak!!

Larrea enparantza, 5 behea Tfnoa: 77 01 69



- Garbitasun orokorrak eta mantenimendua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

Santana auzoa, 4 etxabea Tfnoa: 71 48 45 ESKORIATZA

# Aste honetatik aurrera Erdiko Kale, 14an aurkituko gaituzu.



**Trokon  
udaberrirako  
dotoretu gara.**

Denda erosoago jantzi  
dugu, zuk merezi  
duzulako.


Hurbil zaitez denda  
berrira.

# Lokala aldatzea eta inbertsioak egitea ARKOren aurtengo asmoak

Datorren ostegunean, hilak 30ean, urteko Batzar Orokorra egingo du ARRASATE PRESS eta ATB gestionatzean dituen ARKO elkarteak. Batzarrean iazko ihardueraren balantzea egingo da eta aurtengorako dauden asmoen berri emango da besteak beste.

Iñaki Aranburu, ARKOko lehendakariaren iritziz, Udalak emandako laguntza %10 txikiagoa izan zenez, 94a urte gogorra izan zen, urte galerekin hasi zuten eta. Oraindik aurtun ARKOko zein laguntza jasoko duen ez badaki ere, orain dela bi urte adina izango dela espero du ARKOko lehendakariak, 95ari begira hainbat inbertsio egitea aurrakusi du eta.

Inbertsioei dagokienez, ATBko soinuaren kalitatea hobetzea eta ARRASATE PRESS-



Telebistako soinuaren kalitatea hobetzea izango da aurtengo asmoetariko bat.

eko makinaria aldatzea dira elkartearen asmo nagusiak. Horretaz gain, esan behar da urte bukaera alderako, bi medioen egoitza aldatzen, eta orain INEM dagoen tokira pasatzea posible dela.

Batzar Orokorrean, gainera, Herri Telebisten Legea egiteko Madrilen osatu den zirriborroaren berri emango da eta horrek ekarriko dituen arazoan gainean hitzegiteko. Zirriborroaren arabera, Udalek

izango dute telebisten kontzesioa hartzeko lehentasuna, zortziretatik hamabietara ezingo da publizitatea emititu, telebista ezingo da eskualde mailakoa izan eta hizkuntzen aniztasuna bultzatuko da.

## BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

### Mamografia

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.

# GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA



DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.


Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18

# Udal hauteskunderi begira alkategaiak aukeratuta

Dagoeneko badakigu maitzaren 28an egingo diren udal hauteskundeetan, alderdi desberdinek aurkeztuko dituzten alkategai eta zinegotzigaiei izenak.

Eusko Alkartasuna eta PSE-EE izan ziren lehenak izenak ematerakoan; bi alderdi horiek otsailaren hasiera aldean zerrendak ezagutzera zituzten eta. Ondoren, Ezker Batuak (IU) argitu zuen bere zerrenda eta joan zen zapatuan, ostera, Herri Batasunak. Bukatzeko Eusko Alderdi Jeltzaleak, martitzenean asanblada egin zuen eta alkategaia nor izango den erabaki. Zerrenda ezagutzen da baina ez bakoitza zein tokitan joango den.

Bestalde, Partidu Popularrak oraindik ez du argitu zerrendarik aurkeztuko duen edo ez, baina baliteke orain dela lau urte egindako udal hauteskundeetan donostiarrez osatutako zerrenda aurkeztu zuen eta. Zutik-ek bestalde, zerrendarik aurkeztu ez arren hauteskundearen inguruan hainbat ekintza anto-



**HB**

**Xabier Zubizarreta**

Zinegotzigaiaik: Ino Galparsoro, Juan Luis Arexola-Leiba, Juan Jose Saenz, Yolanda Perez de Arenaza eta Isabel Zuazubiskar.



**PSE-EE**

**Ignacio Jimeno**

Zinegotzigaiaik: Blanca Roncal, Paco Garcia, Rafaela Romero, Jose Luis Lana eta Esther Fernandez (independientea)



**EAJ**

**Jose Mari Loiti**

Zinegotzigaiaik: Jabier Aresti, Maria Angeles Iñurategi eta Julian Garai.

latzeko asmoa duela adierazi du.


ARRASATE PRESSEN hurrengo asteetan hasiko gara udal hauteskundearen inguruko informazioa baten. Aurreko udal hauteskundeetan lortutako emaitzak kontuan izanda, atzetik aurrera alkategaiei elkarrizketak egingo dizkiegu, alderdiaren programa eta asmoak aurkez ditzaten.



**EA**

**Isabel Gallastegi**

Zinegotzigaiaik: Juan Antonio Barriocanal, Pello Urizar, Jabier Nafarrate eta Aitor Orobengoa (independientea)



**IU**

**Joseba Ugalde**

Zinegotzigaiaik: Angel Tijero, Marisa Uriarte, Julian Feo eta Nelly Diez.

## ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

### Zerbitzuak:

Diagnostikoa-Orientazioa

Estimulazio goiztiarra

Erreabilitazio funtzionala  
(Psikomotrizitatea eta hizkuntz bereziera)  
Logopedia

Laguntza terapia

Mota guztietako eskola arazoak, enuresia  
(Ohe bustitzea), eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea, 10  
Tfnoa: 79 48 77  
ARRASATE

Baster-alde  
  
Jatetxea

Sasoiko platerak, giro onean

Galartza auzoa

ARETXABALETA

Tfnoa: (943) 79 24 58

I  
R  
T  
A  
B  
E  
R  
N  
A

Ferrerias kalea  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 56 11

# Euskararen erabilerak gora egin du aurten ere Arrasaten

Azken zortzi urteetan euskararen presentzia bikoiztu egin da herrian, Arrasateko kaleetan zenbat euskara erabiltzen den jakiteko Udalak urtero egiten duen neurketak erakusten duenez. 1987an %11,6ko presentzia zuen euskarak eta aurten egin berri den ikerketak adierazten du, %27,9ra igo dela zifra hori. Jose Felix Diaz de Tuesta, Euskara Zerbitzuko Arduradunaren esanetan, "datuek erakusten dute euskara gehien egiten dutenak haurrak direla eta gainontzeko adin-taldetan euskararen erabilera erdira jaisten dela".



Umeek hitzegiten dute euskaraz batez ere.

euskararen erabilera indartzeko hitzarmenean dauden eskolen ekimenez egin da. Guztira, OHoko 1089 ikasleri egin zaie inkesta, emaitza hauekin:

- 1089 ikasletatik, 724k euskara hutsean ikasten du eta 365ek euskaraz eta gaztelerez. Hala ere 573 ikas-

lek hitzegiten du euskara gaztelera baino hobeto, gainontzekoak alderantziz.

- Etxean zein hizkuntza erabiltzen duten galdetuta, gurasoek euren artean beti euskaraz hitzegiten dutela 50ek bakarrik aitortu dute, gehienetan euskaraz egiten dutela 131k, gehienetan gaztelerez 211k eta beti gaztelerez 687k.

- Anai arrebek euskaraz asko hitzegiten dutela, ostera, 367 ikaslek adierazi du, gutxi 144k eta ezer ez 101ek.

- Lagunek nola hitzegiten duten erantzuterakoan, 326k lagunek beti euskaraz egiten dutela esan dute, 189k gehienetan, 195k gehienetan gaztelerez eta 319k beti.

Hitzarmeneko Eskola Mahaiaren iritziz, etxeko giroak lagundu ez arren emaitzek erakusten dute ikasleek euskara asko erabiltzen dutela eta euskaraz bizi den belaunaldia datorrela.

## Kiroldegiaren egitura aztergai

Musakolako Kiroldegiaren egitura egoera txarrean dagoela eta, horren azterketa egitea erabaki du Arrasateko Udalak. Hormigoia-egoera ez da ona eta horregatik 487.000 PTA. zuzendu dira ikerketa egiteko. "Intemac" enpresari adjudikatu zaio azterketa hori egitea.

## Gnosis programa Ikerlanen

Martxoaren 30ean, Gnosis programaren jardunaldi bat burutuko da Ikerlanen. Japon, Kanada, Australia eta EEBBek garatutako nazioarteko programa bat da Gnosis eta helburua, produkzio sistema hobetzeko eta teknologi aurreratua lortzeko urratsak ematea da. Hori lortzeko oinarriak, berriz, enpresa barruko ezagutzak harremanetan jartzea eta beste enpresa batzuekin harremana izatea dira. Gnosis programaren hitzaldiak bakarrik Alemanian, Finlandian, Frantzia eta Ikerlanen egingo dira.

## Bedoñako bideak berritu

Bedoña auzoko hainbat bide berritu egingo da. Errastikua baserititik Urkamendirako doan bidea, Errastikutik Artia baserrira doana eta Mendibixutik Zabala baserrira daraman bidea.

### EUSKARAREN KALE-ERABILERA 1995EAN

	Haurrak	Gazteak	Helduak	Zaharrak	Guztira
<b>Uribarri</b>	75,7	28,1	37,1	19,7	41,2
<b>Santamaina</b>	8,4	3,2	4,7	4,3	5,2
<b>San Andres</b>	24,6	19,4	15,5	15,1	17,4
<b>Musakola</b>	6,8	26,8	17,3	23,6	18,3
<b>Erdialdea</b>	61,2	24,8	22,1	42,8	32,5
<b>ARRASATE</b>	50,3	22,6	22,8	27,3	27,9

**Koadroak erakusten du %tan, auzoka eta adinaren arabera zein izan den 1995ean egindako ikerketaren emaitza.**

**S. CARRASCAL S.L.**

**Bertan egindako:**

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

**Fabrikan erakusketa**

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a  
Tfnoa /FAX: 79 01 82

**MARGOAK  
JUANMA**

Margoak, paperak,  
gotelea e.a.

Agerre kalea, 5 3. ezk.  
Tfnoa: 79 69 17

**MRW**  
WORLDWIDE COURIER

**HIRI ETA ESTATU BARNEKO  
ETA NAZIORTEKO BIDALKETAK**

Bizkaia Etorbidea, 19 etxabea • Tfnoa: 79 92 77 (4 linea)

## IZEN PROPIOAK

## ● Alvaro


**Arrizabalagak**, 29 urteko oñatiarrak, "Harrizko tresneria goi paleolitikoaren hasieran kantauri aldean" tesia irakurri zuen joan zen asteazkenean Gasteizko historia fakultatean. Tesian 12 aztarnategi aztertu ditu Arrizabalagak eta horien artean, Arrasateko Leze-txiki eta Labeko koba daude. Alvaro Eusko Ikaskuntzako Arkeologia Saileko lehendakaria da, eta orain arkeologian doktorea.

## ● Javier Mongelos


MCCko presidente izandakoa eta Jose Antonio Itarte "Talleres de Eskoriatza" enpresako presidentea izan dira "Gipuzkoako Urteko Enpresarien" saria jasotzeko izendatuak. Javier Mongelos talde kooperatiboa korporazio bihurtzeko bultzatzailea izan zen. Jose Antonio Itartek bere enpresa, zerrailu sektorean liderra, internazionalizatu egin du.

**Jon Ozaetak hiru kilo térdiko amuarraina**

harrapatu zuen Uribarri Ganboan, domekan goizeko 7.30etan. 15 minututan amuarrainarekin borroka bizian ibili ondoren, azkenean Jonen trebeziak menderatu egin zuen haren indarra eta kemena. Zein amurekin harrapatu zuen, batek daki! hala, ere, denboraldia asteko ez dago bat ere txarto. On egin!



**"Zuhaitz eguna" zela eta, 6. mailako ikasleek 70 haritz eta lizar sartu zituzten zapatuan. Goiz berezia izan zuten gaztetxo hauek, egunero ez dira zuhaitzak sartzen eta. Zuhaitzak Monterronen ipini ondoren, otarteko bana jaso zuten lanaren truke. Eta jakina, denak gustora!**



LOGOPEDIA  
ZENTRUA  
ARRASATE

HIZKUNTZ ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3 - 1º Esk.  
Tfnoa: 79 79 46 • ARRASATE

**BURGALES JATETXEA**

**Jaki goxoak eta giro atsegina**


**Durana, 12  
ARETXABAETA**



Ostegunean, "Korrika 9" pasa zen Arrasatetik goizeko 7.30ak inguruan. Korrika egiteko ordu onena ez zen arren, txiki eta handi, gazte eta zahar denak elkartu ziren euskararen alde metro batzuk egitera. Argazkietan ikus daitekeen bezala, jende ugari zegoen herrian Korrikaren zain, eta San Prudentzioraino ondo lagunduta joan zen Korrikaren lekukoa.



"Otamendi" baserriko Arana seme-alaben senitar-tekoek bazkaria izan zuten domekan. Eguerdiko 12.30etan meza izan zuten Bedoña auzoko elizan eta ondoren "Errastikua" jatetxean bazkaria. Hogeita hamar bat lagun elkartu ziren eta gehienak Arrasaten bizi badira ere, batzuk Pasaia eta Donostiatik ere etorri ziren. Urtero egiten dute bazkaria Aranatarrek.



Olarte, 30 etxabea.  
Tfnoa: 79 77 11  
Faxa: 79 77 11  
ARRASATE  
Postakutxa: 118



**ERRASTI KRISTALDEGIA**

**Plastiko eta burdinezko hodiak  
beirina eta kristalak  
akzesorioak**

Olarte kalea, 47 behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25



Futbito 94-95

ZALDIBAKO Txapelketa

Babesleak: JMA, Kajoj taberna eta Arrasate Kirolak



## Andoni Garroren gola txapela kentzekoa

Cerveceria Leintzek eta Petrolerosek elkarren kontra jokatu zuten zapatuan arratsaldeko 4retan. Bana-ko berdinketa izan zen azken emaitza, eta Andoni Garro Cervecerias Leintzeko atezainak sartutako golak merezi du aipamenik. Area kanpotik jaurtiketa bortitza egin eta sare barrura joan zen baloia ikusleen harridurarako. Golazo bat izan zen, zalantza barik. Argi ibilik eta Orlando Piratasek ere partidu borobila jokatu zuten. Argi ibilik hasieratik bere nagusitasuna erakutsi zuen eta 8 eta

1 irabazi zuen. Bestalde, Fosforosek astindu galanta eman zion Bukanak taldeari 10 eta 1 nagusituz. AC Surcosek ere 10 diana sartu zizkion D. A. Irizturi. Gol dexente, beraz, bigarren faseko bigarren jardunaldian. 120 gol sartu dira guztira. Taldez talde, B taldean sartu dira gol gehien 41, A taldean 33 gol, D-an 26 gol eta E taldean 20 baino ez. Bigarren fasea bukatzeko bost jardunaldi besterik falta ez direnean, taldeen arteko aldea gero eta nabar-menagoa da.

Arreta  
haundiko  
sukaldea

UGARAN  
jatetxea

Giro  
abegikorra

# Bigarren fasea



## A taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
ARGI IBILI	2	2	0	0	12	3	4
PERRAHOTSA	2	2	0	0	4	0	4
PEPELUS	2	0	2	0	0	10	2
ORLANDO PIRATAS	2	1	0	1	5	2	2
EQUUS	2	0	1	1	6	7	1
HIREI	2	0	1	1	8	10	1
LOS DIMY	2	0	1	1	9	7	1
ARTZANKOS UDALAITZ	2	0	1	1	4	7	1



## B taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
AC SURCOS	2	2	0	0	19	3	4
LOS HEREDIA	2	2	0	0	15	5	4
PUB PEOPLE	2	2	0	0	12	7	4
IRATI STS	2	1	0	1	8	6	2
LORATEGI POTROAK	2	1	0	1	7	10	2
MSM INGENIER	2	0	0	2	4	8	0
SOKOAKOAK	2	0	0	2	3	17	0
D.A IRIZTU	2	0	0	2	3	17	0



## D taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
ZULOAK	2	2	0	0	12	2	4
FOSFOROS	2	2	0	0	16	3	4
CERV LEINTZ	2	1	1	0	6	5	3
BAR NUEVO	2	1	0	1	2	5	2
TOTEM	2	1	0	1	5	3	2
PETROLEROS	2	0	1	1	3	7	1
BUKANAK	2	0	0	2	5	13	0
OJO AVISORE	2	0	0	2	3	10	0



## E taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
MIKELOS	2	2	0	0	9	1	4
ADELAIDA HAIZEA	2	2	0	0	8	2	4
SUM. UGARTE	2	2	0	0	12	3	4
ZOTZ	2	1	1	0	6	2	3
TRIKITI	2	0	1	1	2	5	1
AUTOS MURU	2	0	0	2	3	10	0
GANBELAS	2	0	0	2	2	9	0
KE OXTIAS	2	0	0	2	1	11	0

## Uribe auzoako Futbito Txapelketa

### A Taula

Borrock'n Roll	.....2
Berza Mutante II	.....2
Leya	.....2
Exc. Lete	.....2
A Las 9 No	.....2
CD Arko	.....0
DKB	.....0
Holokastro Kanibal	.....0
La Banda	.....0
Energizer FC	.....0
Munar Txiki	.....0

### B Taula

BlackBurn	.....2
Eztanda egin arte	.....2
Jo ta Akabau	.....2
Arrasate Kirolak	.....2
Tronkoteak	.....2
Trotabares	.....0
Anaral	.....0
Pier Nodoyuna	.....0
Baneuko	.....0
Orkatz	.....0
Los Intocables	.....0

### D taldea

Los Dimy	.....2
Uglus Txinato	.....2
Zigarrola	.....2
Balon Rojo	.....2
Arrasate Zoo	.....2
Equus BTR	.....0
Ke Oxtias	.....0
Eman Bidea	.....0
No Comment	.....0
astoen Villa	.....0
Garajauke	.....0

### E Taldea

Kamasutra	.....2
The Barrio	.....2
Borrock'n Roll	.....2
Dribling	.....2
Koka Juniors	.....2
Lo + X	.....0
Kurtze txiki	.....0
Super Ganbelas	.....0
Telleria A.	.....0
Extintos Foruen	.....0
Hirei	.....0

### F Taldea

Lautherbrunen	.....2
COrazon de Encina	.....2
Gallinero	.....2
Salenco y Konpañia	.....2
Bodega Anboto	.....1
Iluna Taberna	.....1
Elisabeth	.....0
Berango Suk.	.....0
Euskal Suporters	.....0
Txeyenex	.....0
Sukar	.....0



# URONDO

## elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoa
- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa

Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76

ARRASATE

# Debalde

2. zki

DEBA BAILARAKO MERKATAL GEHIGARRIA

Errotalde Jauregia, z/g – 20570 BERGARA Tfnoa: 76 36 61 – Faxe: 76 08 19

## Zure IRAGARKIEN zain

- Zerbait saldu, erosi edo esan nahi baduzu, IRAGARKI MOTZEN atala eskaintzen dizugu
- **80.000 irakurlerengana** zure mezua zabaltzeko
- **Deba Bailaran 19.000 etxeetara** iristeko
- 300 pta.gatik zure eskaintza lau haizetara bidaltzeko

NOLA BIDALI ZURE IRAGARKIA:

### IDATZIZ

**Debalde**  
Errotalde Jauregia  
20570 BERGARA

### TELEFONOZ

76 36 61

### FAXEZ

76 08 19

### PERTSONALKI

Jo ezazu  
zure herriko  
astekarira

### Argitaratzaileak:

- Arrasate Press
- Berrigara
- Elgoibarren
- ...eta kitto!

### Publizitatea:

- Imanol Amiano
- Antxon Iriondo

### Maketazioa:

- Jose Luis

### Gorostegi

### Tirada:

- 19.000 ale

### Inprimategia:

- Gertu Koop.  
(Oñati)



## FURGONETEN EKIPAMENDUA

KANPING, BULEGO ETA LANTOKI MUGIKORRAK

Zurbaranbarri, 40  
(94) 445 22 80  
48007 BILBO

*Prestatu itzazu orain zure hurrengo oporrak*

Edozein eratako furgonetak eraldatu eta ekipatzen ditugu. Proiektu guztiak zure nahiaren arabera guk diseinatzen ditugu.



**Hornidura fase desberdinetan egiten dugu, oinarritzko ekipamendutik hasi eta xehetasun txikienarekin amaitzeko.**

**Gustora emango dizugu informazio gehiago.**

**Deitu konpromezurik gabe.**

**Oporrak bizitzeko era desberdina.**

**Aurrekontua eskatuiguzu inongo kezkarik gabe! DEITU (94) 445 22 80 tfnora.**



# Iragarki Merkeak

## ETXEBIZITZAK

- PISUA SALGAI EIBARREN.  
Amañan dago. Lehiu guztiek kanpo aldera. Berriztua. Hiru logela, egongela, sukaldea eta komuna.  
**10 29 94**
- ETXEBIZITZA SALDU EDO ALOKATU egingo nuke. Eibarko Santaiñes kalean. Kanpo aldera ematen du eta igogailua dauka.  
**94 - 410 12 92**
- PISUA SALGAI Bergarako Koldo Eleizalde kalean.  
**76 56 90**
- PISUA SALGAI Zumaian.  
**76 44 53 / 74 31 81**
- ETXEA SALGAI Osintxun.  
**76 28 70**
- PISUA ETA LONJA salgai Osintxun.  
**945 - 25 19 64**
- BASERRIA SALGAI Elosun.  
**76 57 24**

- GELA BAT BEHAR DUT Donostian.  
**10 72 62 (Gonzalo)**
- LAGUN BAT BEHAR DUGU Donostian, Gros auzoan, pisu bat osatzeko.  
**29 11 10 (Jontxu)**  
-Gauetz 10etatik aurrera-
- LAGUN BAT BEHAR DA pisua konpartitzeko.  
**10 32 44 (Maite)**  
-Lan orduetan deitu-

## SALEROSKETAK

- MATRIMONIO LOGELA oso bat, 90eko bi ohe dituen LOGELA osoa MATRIMONIO LOGELA puente bat, SALA oso bat eta SUKALDE oso bat SALTZEN DITUT transladoagatik.  
**74 33 19**
- Itik 3etara /7,30etatik 10etara-

- GAZTAINONDO EGURREZKO "armairu zubia" saltzen da bi ohekin. Prezioa erabakitzeko deitu.  
**79 44 00**
- Sega Megadrive KONTSOLA ETA 2 JOKU salgai. 15.000 pta.  
**76 39 77**
- 10 LITROKO FAGOR KALENTADOREA salgai, ia berria, 13.000 pta. BEROGAILU JAPONIARRA, handia eta berria, 35.000 pta.  
**77 01 64**
- MUSIKA KATE BAT saltzen dugu. Philips markakoa, erabili gabea eta berri-berria.  
**74 26 26 / 74 20 31 -Gauetz deitu-**
- LARRUZKO TXAMARRA, HEAVY ITXURAZKOA, salgai. Estreinatuta barik. 16.000 pezeta.  
**70 13 94 (Pepe)**  
-Bazkal orduetan bakarrik-

## IBILGAILUAK

- FORD FIESTA (SS-AD) KOTXEA salgai.  
**76 46 80 -Egunez-**
- VOLKSWAGEN CORRADO (SS-AG) KOTXEA salgai.  
**76 38 16**
- RENAULT 19, 16 v. KOTXEA salgai (SS-AJ)  
**76 24 02**
- MOTORRA HONDATUTA DUEN RENAULT 21a erosi nahi nuke.  
**10 09 19 (Jon)**
- YAMAHA TZR 80 cc BAT saltzen dut. Oso ondo dago. Prezio interesgarria.  
**74 41 12 (Nekane)**
- BMW K-75 salgai. SS-AK matrikula. 27.000 km. Berria eta prezio onean.  
**77 04 21**




Tfnoa: (94) 684 23 52  
48299 - MENDEXA  
(BIZKAIA)

Urte osoan irekita.  
Denda, taberna eta jatetxea.  
Eguneko menua eta karta.  
Ingurune ikusgarrian kokatua.



ISABA - BELAGOA BAILARA (NAFARROA)  
Telefonoak: 948 - 89 30 34 / 89 32 34 Faxa: 948 - 89 30 34  
6 plazako 3 bungalow / 60 plazako albergea, 3-5-6-7-8 oheko logelekin  
Jolas eta joko gela, billarra, ping-pong / Sukaldea zure esku  
Akanpatzeko 400 plaza / Taberna - Jatetxea - Supermerkatua  
Garbiketa zerbitzua / Aktibitateak: kainoi jeitsierak, zaldi ibilaldiak, senderismoa, espeleologia, etabar.



## KAI JATETXEA

- 250 lagunentzako jantokia
- Ezkontza, bataio eta jaunartzeak
- Karta eta eguneko menua

MAGDALENA AUZOA, 4 ☎ 60 33 44 / 60 41 34  
MUTRIKU (Gipuzkoa)

## Hostal "Lola"

- 19 logela, bainugela eta guzti
- Etxeko giro lasalean
- Etxeko sukaldaritza tradizionaleko jatetxea
- 140 lagunentzako tokiarekin



Mendiatxa, 17  
Telefonoa: 948 - 89 30 12  
ISABA

## Teilaturako lehiotza eskilarak

M  
O  
B  
O  
K  
I  
T



Hortaleza, 4 VITORIA-GASTEIZ  
☎ eta Faxa(945) 25 55 53

®

e  
t  
a  
e  
s  
k  
i  
l  
a  
r  
a  
k

## KARAOKE Sonimagen

Ikuskizun liluragarria: pailazoak, magia, diskoteka mobila, pantaila erraldoia... eta noski, karaokea!



Gogoratu gurekin zure jaia edo berbena ospatzerakoan!

☎ 945 - 22 13 83 GASTEIZ

Manuel J.  
Perona

ORTODONTZIA  
EGOKITUA  
ZEURETZAKO

EE.BB.ko Kaliforniako  
Roth Williams Center-en diplomatua  
R.P.S. 216/94

Haur eta Helduen  
Ortodontzia

DATO, 19 - 1.

Tfnoak: (945) 23 29 61 / 23 32 12  
01005 GASTEIZ



MAVISAN

Palencia, 20  
☎ (945) 26 77 83  
01002 GASTEIZ

- Belardenda
- Dietetika eta nutrizioa
- Estetika gela
- Kontsulta naturista

## ITSAS MENDI

Autokarabanak

PILOTE

EHYMER



Karabanak



Erremolkeak



karabanak



ANDOAIN

Tfnoa: 59 32 90

Bariante  
ondoan

Autokarabanen alokairua

Furgoneten eraldaketa

# banoa


## KORSIKA "Nairobotarra" rekin

*Aste Santu honetan ere Korsikara hurbilduko gara. Litera eta sukaldedun autobusa erabiliz, irla honetako natura eta kontrasteak ezagutuko ditugu askatasun osoz.*

*Autobusak bizikleta eramateko lekua du. Janaria taldekide guztien artean egingo da, denen artean jarritako diruarekin.*

**EGUNAK: APIRILAK 12TIK 23RA**  
**TALDEA: 10-20 LAGUN**  
**IRTEERAK: BILBO ETA DONOSTIA**  
**PREZIOA: 84.000 PTA.**

Autobus barruan eta kanpinetan egiten dugu lo. Garraioa, ferrya eta kanpinak ordainduta daude. Janaria ez da prezioan sartzen.



Ledesma, 10 bis-2.a  
48001 BILBO  
Tfnoa. 94 - 424 00 11  
Faxa 94 - 423 20 39

## Nafar Pirinioan




**URROBI**  
**KANPINA**



- Zerbitzu egokiz hornitutako kanpina.
- 4 eta 6 lagunentzako bungalowak, guztiz ekipatuak.
- URROBI eta Irati ibaietan arrantza egiteko aukera paregabea.
- Ibilaldiak: mendibizikletan edo-eta zaldiz.
- Tenisa, mini-golfa eta atsedena.
- Pirineo mendikatearen erdian kokatuta, mendi irteerak egiteko abiapuntu egokia duzu URROBI kanpina.

ESPINAL-AURITZBERRI  
ORREAGAtik 3 km.tara  
Iruña-Luzaide errepidea, 42. km.  
Tel. eta Faxa: (948) 76 02 00  
NAFARROA



**BELARRIRA**

◆ **Kanporatua.** Diego Antonio Iriztu taldeko Txipi jokalaria partidu osorako kanporatu izan zen epailearekin zenbait arazo izan ondoren. Kanporatua izan zelako bi partiduko zigorra bete behar du.

◆ **Argiekin zer?** Bigarren fasea hasi zenetik argi barik jokatzeko ari dira Zalbidarren eta zazpiretan jokatu beharreko partiduetan arazoak izaten dituzte. Beraz, argien arduradunei deia egiten diete arzoa lehenbailehen konpontzeko.

◆ **Lesionatuak.** Jon Etxabe Ke Oxtias taldeko atezaina lesionatu egin zen eta Ricardo Lopez Recarte Lorategi Potroak taldekoak zartada handia hartu zuen belan. Kontuak kontu, jokalaria ezingo dute hurrengo jardunaldian jokatu.

◆ **Baloiak.** Baloiak berehala desagertzen direla esan digute antolatzaileek. Zapatuan lau baloi zeuden, domeka goizean bi eta eguerdirako baloi bakarrarekin geratu ziren. Baloi lapurrak ibiliko ete dira Zaldibaren?

Hirugarren jardunaldiko lau partidu azpimarratuko ditugu beste guztien artean: Cerveceria Leintz eta Totem aurrez aurre izango ditugu zapatuan arratsaldeko 4retan. 6etan, ostera, Equis BTR eta Orlando Piratasen arteko neurketa egongo da jokuan. Domekan goizeko 11etan Fosforos eta Zuloaken arteko partidua ikusteko modukoa izango da eta baita Suministros Ugarte eta Trikitiren artekoa ere, talde biek eguerdiko 12etan neurtuko dituzte indarrak.

**EMAITZAK**

**A Taldea**

Argi Ibili 8 - Orlando Piratas 1  
Equis BTR 5 - Pepelus 5  
Hirei 3 - Perrahotsa 5  
Artzankos Udalaiz 3 - Los Dimy 3

**B Taldea**

Irati STS 5 - MSM Ingenier 2  
AC Surcos 10 - D. A Iriztu 1  
Los Heredia 8 - Sokoakoak 3  
Lorategi Potroak 4 - Pub People 8

**D Taldea**

Nuevo taberna 1 - Zuloak 5  
Fosforos 10 - Bukanak 1  
Cerv. Leintz 1 - Petroleros 1  
Ojo Avisore 2 - Totem 5

**E Taldea**

Adelaida Haizea 4 - Trikiti 1  
Sum. Ugarte 4 - Autos Muru 2  
Mikelos 3 - Ke Oxtias 0  
Zotz 5 - Ganbelas 1



**Parques y Jardines**

**Parke eta lorategien sorkuntza.**

**Larazaintzako mantenimendua ora har.**

**Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.**



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)

**ASTEBURU HONETAN**

**LARUNBATA 25**

**Zaldibar**

- 8.50 Irati STS - D.A Iriztu
- 10.00 Lorategi potraokj - Sokoakoak
- 11.00 Nuevo Taberna - Bukanak
- 12.00 AC Surcos - MSM Ingenier
- 13.00 Los heredia - Pub People
- 14.00 Zotz - Ke Oxtias
- 15.00 Hirei - Los Dimy
- 16.00 Ce Leintz - Totem
- 17.00 Adelaida Haizea - Autos Muru
- 18.00 Equs - Orlando Piratas
- 19.00 Mikelos- Ganbelas

**IGANDEA 26**

**Zaldibar**

- 8.50 Artzankos Udalaiz - Perrahotsa
- 10.00 argi lbili - Pepelus
- 11.00 Fosforos - Zuloak
- 12.00 Sum. Ugarte - Trikiti
- 13.00 Ojo Avisore - Petroleros

# Trotabaresek bi puntu gutxiago lehen jardunaldian

**U**ribe-auzoa txapelketa hasi baino ez da egin eta Trotabares taldekoek bi puntu gutxiago dituzte, epaitu beharreko partidura ez zirelako aurkeztu. Gainerakoan ez da arazorik egon jardunaldian. Datorren asteburuan bigarren erronkari egin beharko diote aurre eta bost taldek atsedena izango dute: A las 9 no, Tronkoteak, Arrasate Zoo, Lo + X eta Bodega Anboto 19ers taldeek. Golei

dagokienez, Leyak 16 sartu zituen eta bera da jardunaldiko talde goletzailena, hamaika golekin The Barrio taldea dago eta zortzirekin Salenko y konpañia eta Jota Akabau taldeak daude. Kontran Holokaustro Kanibalek jaso zituen gol gehien, 16 partidu bakarrean, Telleria auto-eskolari 11 sartu zizkieten eta Pier Nodoyuna eta Elisabethe-ri zortzi. Gol gehiegi kontran estraineko jardunaldia izateko.

**URIBE AUZOA**  
**Futbito**  
**Txapelketa**



**LARUNBATA 25**  
**Iturripe A**

- 9.00 Euskal Suporters - Salenco y Konpañia
- 10.00 Energizer - Exc Lete
- 11.00 Ganbelas - Kurtze Txiki
- 12.00 Blackburn - Los Intocables
- 13.00 Zigarrola - Garajauke
- 14.00 DKB - AC Arko
- 15.00 Txeyenex - Sukar
- 16.00 LA Banda - Munar Txiki
- 17.00 Orkatz - Eztanda egin arte
- 18.00 Eman Bidea - Ke Oxtias
- 19.00 Telleria - Kamasutra

**Iturripe B**

- 12.00 Lautherbrunnen - Gallinero
- 13.00 Berza Mutante - Holokaustro

- 14.00 Amaral - Jotakabau
- 15.00 Balon Rojo - Uglys Txinato
- 16.00 Extintors - B. Roll Promesas.
- 17.00 Berango Sukaldeak - Corazon de Encina
- 18.00 Leya - Borrock 'n Roll
- 19.00 Baneuko - Arrasate Kirolak

**IGANDEA 26**  
**Iturripe A**

- 11.00 The Barrio - Hirei
- 12.00 Pier Nodoyuna - Trotabares
- 13.00 Los Dimy - Equs BTR

**Iturripe B**

- 11.00 Elisabeth - Iluna Taberna
- 12.00 No Comment - Astoen Villa
- 13.00 Dribling - Koka Juniors

**VE ECUADOR**

**Bidaiak**

**Bidaia zoragarri bat irabazi nahi baduzu, har ezazu parte ATBketan lehiaketan Ez galdu aukera!**

Kontzeziño, 2  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 14 06



*Kalitate gorena leihoretan*

**LANTEGIA ETA ERAKUSKETA**

Kataide poligonoa, 4. pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE



# ● Jose Maria Jansà

## Sekten aurkako lanean

**Jose Maria Jansà sendagile kataluniarra da, sekten gaian aditua, batez ere erreabilitazioari dagokionez. Udalarren gonbidapenari erantzunez eta herrian azken aldean gertatu direnak gertatuta, pare bat egunez hemen izan da sektei buruzko hitzaldiak ematen.**

**- Nola sartu zinen sekten mundua aztertzeraz?**

- Ezer berezirik ez zen gertatu, aurrez banuen interes apur bat eta. Sendagile baten beharra zegoela gomendatu zidaten ezagun batzuk eta beste barik hasi nintzen lanean. Ikastaro berezi bat egin nuen Estatu Batuetan, han sekta-kopuru handia izateaz gain, informazio ugari ere badute eta. Amerikarrek oinarritzko ideia batzuk eman zizkiguten, eta gerora lan-talde bat antolatu nuen, AIS taldea, sektei buruzko informazioa zabaldu eta erreabilitazio mailan lan egiteko asmoarekin. Talde honetan profesionalak eta, hutsaren truke lan egiten duen hainbat jende dago.

**- Zer da sekta bat?**

- Labur esanda "gauza txar" bat esango nuke; zehaztasun gehiago behar izanez gero, pertsonen psikologian eragiteko, persuasio eta kontrol teknikak erabiltzen dituen

talde bat dela esango nuke, teknika horien bidez gizakien jokabidea eta izaera aldatzea lortuz. Honelako taldeek itxura eta egitura desberdin asko har dezakete: kultur elkarte, erlijio talde, komertzial-sare... baina helburu bakarrarekin, boterea, liderraren boterea.

**- Liderra hain garrantzitsua da?**


- Erabatekoa. Normalean taldeko fedearen sortzailea izaten da, jendea elkartu eta taldeak zer egin behar duen erabakitzen duena. Aginte osoa izaten du taldearen barruan.

**- Sekten fenomeno oso zabalduta dago Estatuan?**

- Beno, egon badaude. Gertatzen da kopuruari dagokionez ez dela, esaterako aholkolarerekin konparatuta, izugarritzko jende pilo harrapatuta duen fenomeno. Dena dela ez da oso erraza jakitea norbait sekta baten menpe dagoen edo ez, samurragoa da bat aholkolikoa den edo ez ikustea. Zentzu horretan zaila da esatea sekten hedadura zehatza nora artekoa den!

**- Identifikatuta daude?**

- Batzuk bai, baina azken 5 edo 6 urteetan talde berri asko ari da sortzen eta poliki-poliki ezagutzen ditugu, dauden salaketan eta kasu berrien ara-



bera. Gaur egun Estatuan ehunen baten berri badugu eta pentsatzen dut ezagutzen ez ditugun beste horrenbeste ere egongo direla.

Bestalde, gertatzen da talde gutxi batzuk biltzen dutela jende gehien, eta hemen inolako duda barik, bi dira nagusi: Opus Deia eta Jehovako Lekukoak, sektetan dauden pertsonen %60-70a biltzen dute eta.

**- Zer eskaintzen dute bada sektek?**

- Denetarik, lana, bizialdaketak, balore berriak, drogen mundutik irtetzeko bideak...

**- Erreabilitaziorik lor daiteke?**

- Batzuk bi hilabetez sen-

da daitezke, ezagutzen dut sektatik irten nahiean 15-20 urte pasa dituen ere... bizi osoan saiatu eta lortu ez duenik badago, baina oso kopuru txikia da hori. Irtetzeko modu desberdinak daude: norberak bere kontu, kanpotik lagunduta, edo sektatik kanporatuta, garrantzitsua edozein modutan irtetzea da.

**- Mundu horretan zer egin dezakete komunikabideek?**

- Komunikabideek kalitatezko informazioa eskaini behar dute eta uste dut orokorrean komunikabideek lan ona egin dutela, kasu haurtan sekten aurkako jarrera hartu dutelako. Nire iritziz komunikabideek berdin jarraitu beharko lukete, heziketarako informatuz.

**● "Hemen bi sektak biltzen dute jende gehien: Opus Dei-ak eta Jehovako Lekukoak, sektetan dauden pertsonen %60-%70a biltzen dute eta"**

# Udaberri maitagarri

Maidar Egües

**Martxoaren 21ean, goizeko 3.14an agurtu genuen negua. Udaberriari sartu gara eta jertse lodiak, galtzak, bufandak eta eskularruak armailuetan gordetzeko ordua heldu da. Eguzkia Ariesen kokatu da; udaberriaren eta suaren zeinuan.**

Esaera ezagun batek udaberriak odola irakiten jartzen duela esaten du. Esaera hori ez da gezurra; udaberriak badu gizakiengan eragin biologikorik. Urtaro honetan maiteminduak inoiz baino gehiago maitatzen ei dira eta neguan zehar erdi lokartuta egon diren gorputzak esnatu eta gizakiari bapateko bizitasuna sortzen omen zaio.

Udaberriari "maitasunaren urtaroa" ere deitzen zaio; zerbaitegatik izango da. Sinezgaitza dirudi, baina jendea errezago maitemintzen ei da udaberriari. Adituen esanetan, gizakiak berria den guztiarekiko erakargarritasuna sentitzen du urtaro "magiko" honetan. Errezago igaritzen du adibidez, begirada edo keinu baten esanahia. Irakasle baten esanetan, gure bizitzan edozein aldaketa egiteko prest egoten gara urtaro honetan eta jokuekiko eta fantasiarekiko erabateko jarrera izaten dugu. Gainera, emakumeak batez ere, ametsen eta

gorputz fantasien munduan erabat sartzen direla esan ohi da. Gizonek berriz, beldurra ei diote udaberriari askoz razionalagoak direlako. Ez omen dira emakumeak bezain beste astoratzen...

## UDABERRI DESEGONKORRA

Udaberriari gaude eta aprobetxatu egin behar da. Aurten gainera, eguzkiarekin batera etorri da urtaro berria, neguko azken egunak joan ziren moduan.

Udaberriaren lehen hila-betean eguzkirik ez hartzea gomendatzen bada ere, gutxi egin diezaiokio ihes eguzkiaren berotasunak gorputzean sortzen duen plazerrari. Hasita daude, batez ere emakumeak eta erdi-izkutuan, Arrasateko etxe altuenetako teilatu-terrazetan lehen "bikini" eta bainujantziekin eguzkia hartzen.

Baina udaberria eguzkitsu etorri bazaigu ere, Pello Zabala apaiz frantziskotarrak desegonkorra izango dela aurreratu du hainbat komunikabideetan "martxoaren 10ean eta 11an ipar eta hego-ekialdeko haizea ibili zen alde batetik bestera eta egun horiek klabeak dira udaberria nolakoa izango den jakiteko. Apirilaren lehen hamabostaldian ez dugu euri zaparrada gehiegirik izango. Gero bai; apirilaren bukaera aldera euri asko egingo du, euriak apirileko ilargiarekin batera etorriko dira eta. Maiatza haizetsua

izango da, ipar eta hegoko haizeen arteko borrokak jarraitu egingo du eta ziur aski, honek ekaitzen bat sortuko du. Beraz, maiatzeko lehen egunak umelak eta euritsuak izango dira; gainontzekoak, osterera, erre-frauk dioen bezela, oso lortsuak."

## BASERRITARRAK LAN ETA LAN...

Eta udaberria urtaro eman-korrena denez, baserriaren lana bikoiztu egiten da. Ingu-ruetako baserrietako ortuetara bueltatxo bat eginez gero, lanean jo ta ke ikusten dira baserritarrak.

Luciano Jauregik, Gargartzako Mangena etxeko baserritarrak dioenez, "udaberriari ortuko lan guztia gainera datorkigu. Negu azkenetara baba beltzak, ilarrak eta irailan ereindako kipulaburuak sartu behar izaten dira. Udaberri hasieran berriz,

tomate eta porru haziak eraiten dira, gero uzta, hiru edo lau hilabetera biltzeko. Beraz, udaberriari lan asko izaten dugu."

Lucianok, ortua politago egon dadin, lorak landatzeko ohitura ere badu, "lorak ortua edertzeko jartzen ditut baina batez ere, erleek polenizatu dezaten. Lorez-lore ibiltzen dira eta han hemenka polena uzten dute."

Baina ez dira ahaztu behar udaberriaren etorreraz pozten ez direnak. Udaberriak lorak, eguraldi ona eta maitasuna badakartza ere, zenbait gaitzen sortzaile ere bada: alergiena, alegia.

## ALERGIAAAA.... ATXIS!

Urtaro honetan begiak



betaurreko ilunez estaltzen dituzten guztiek ez dituzte eguzkiaren argiari ihes egitearren estaltzen; askok eta askok udaberriko haizeak dakarren partikuletatik babes-teko estaltzen dituzte. Ugari dira begiak gorrituta izaten dituztenak eta doministiku egiteari utzi ezin diotenak. Eztarrian sekulako hazkurea izaten dute eta udaberria jasangaintza bihurtzen da horientzat. Medikuen esanetan, gero

eta gehiago dira alergia kasuak, horregatik gomendatzen da txertoa hartzea.

Bestalde, alergien efektua pilulez arindu badaiteke ere, medikuek ez dituzte guztiz gomendatzen: pilulek momentuko efektua arintzen dute baina luzera ez dira sendabide. Alergiak txertoekin tratatzen ez badira, gaixotasuna asma bihur daiteke. Bakunek beraz, ondorio hori ekiditen dute.


## UDABERRIRAKO MODA

Eta nola ez, udaberriko modako erropa berriaren etorraz, neguan hartutako kiloak kentzeko obsesioa sortzen zaio askori. Garai honetan asko dira erregimen edo dieta hasten duten pertsonak eta erlojuaren aurkako karrera bat bailitzan, 10 edo 15 kilo kentzea zin egiten diote euren buruari uda heldu baino lehen. Eta kendu ere kendu beharko dituzte soberrako kilo guzti-guztiak udaberriko moda jantzi nahi badute: ez kolore ilunak eta ezta erropa zabalak ere ez direlako eramango aurtengo udaberrian.

Arrasateko dendariak diotenez, kolore argiak edo "pastelak" eramango dira. Kolore txuria ere asko ikusiko da, baina batez ere barruko erropa imitatzen duten jantzietan. Honek

zera esan nahi du: konbinazio eta lenteria estiloko jantziak daudela modan udaberri honetan. Bestela ere, mini-gona modan dago eta joan den urteko fraka zabalak modan diraute. Berritasun moduan, "pitillo" izeneko frakak.

Ez dirudi beraz, aurtengo udaberriko moda lodientzako pentsatuta dagoenik... baina bost axola eta egin kasu erre-frauari: "Udaberrian eguraldi ona: frakak bera eta gora gona!".





## “Kimu”

**JOSEBA ELORZA**  
(Multzorik onenean saritutako diapositiba)

## ‘Ispiluaren aurrean’

**IÑIGO IÑURRATEGI**  
(Poesian helduen mailan akzesitaren zatia)

Beldur naiz,  
ez dut hutsezko izate  
honetatik gehiegi aldegin nahi...  
ezin dut kanpora irten, bakarrik...  
beldur naiz,  
ezin naiz aipiluan sartu.

Batzutan norbaitek arnasa xurgatzen  
didalakoan nago...  
Agian ni ere irudi huts naiteke, oharkabean  
ez da egia, ezin izan...  
Barreneko indar, odolezko pentsamendu,  
ene irudia berotasun tanto batek busti du,  
saminezko poz, izatearen itxaropen malko.

Badela zerbait gehiago diosta,  
zerbaitek, norbaitek,  
baina ez dakit entzun diodan... nahi diodan,  
eta bitartean бага ilunen artean  
galdutako ohol zaharra naiz,  
minik gabeko ohol,  
arnasarik gabeko arima.

Itxurak itsutu gaituen honetan,  
beltza txuriaren pare,  
gaua gaintutuz,  
argi egarriz abiatu gara ilunerantz,  
txuriaren dizdira iluntasun gardenean  
aurkitu nahian...

Itzalen joku,  
mamuen dantza,  
haragizko ihauteri,  
itsukeriaren izenean  
itxura adoratzen dugu,  
koroatu, egi bihurtu.

hutsean jostatzen den  
anabasa honetatik  
irten nahi nuke,  
geratu,  
denbora pausatu,  
eta entzun:  
zerbaiti, norbaiti,  
entzun.

Eta bitartean,  
udaberriko iñular umeok  
neguko izpi antzuei jarraiki,  
egunak joan, egunak etorri,  
eta gu, bi hutsuneren artean,  
gure antsiak denborak noiz lapurtuko zain,  
ene malkoek zukua gorde  
eta jarraitu besterik ez dudanean,  
denborak aurrera eta ni noraezean,  
negu beltzaren dantza noiz amaituko,  
ispiluaren aurrean.

# Chapime tailerrak

Araba Etorbidea, z/g • Tfnoa: 79 06 57 / 79 45 22 ARRASATE

**Aparteko  
Astea**

martxoaren  
25etik  
apirilaren  
2ra



**EROS EZAZU ZURE 2. ESKUKO  
AUTOA CITROËN-EN**

Zure auto zaharragatik gutxienez

**100.000**

pta emango dizugu.

**Marka, modelo eta prezio guztietako autoak, baita urtebete baino gutxiagokoak ere.** Berriak bezalakoak, egoera onenean eta prezio harrigarriekin.

**Garantia europearra.**

Hautaketa zehatza egiten dugu eta garantia osoa eskaintzeko sistema zorrotza jarraitzen dugu, 24 hilabetera arte baliagarria den, konponketa europearraz hornituta (autoaren egoeraren arabera).

**48 hilabetera arteko Superfinantziaketa.**

Gure markako finantzierak, zure beharretara ondoren moldatzen den finantziaketa formula eskaintzen dizu, 48 hilabetera arteko luzapenarekin.

Larunbat eta  
igandeetan zabalik\*\*

 **Eurocasion**

2. eskuko autoak. Goi mailako autoak.

**Eurocasion Citroën Sarea**



**Arrasate eta J. Claudio taldeen arteko lehia**

Arrasate futbito taldeak J. Claudio taldearen kontra neurtuko ditu indarrak domekan eguerdiko 12etan. Partidua oso garrantzitsua da etxeko taldearentzat. Jamones Claudioren kontra irabaziko balu eta hurrengo partidua Antenavision taldearen kontra ere, jeitsierako tokietatik kanpo geratuko litzateke Arrasateko taldea. Domekan jarraitzaile guztien berotasuna eta bultzada beharko dute Narcisoren aginduetara dauden mutilak. Zorte on!

**EMAITZAK**

**Futbola**

3. maila: Getxo - Zamudio. Larunbata. 5etan.  
 2. Erregionala: Mondra - Elgoibar. Larunbata. 4.30etan.  
 Emakumeak: Mondra - Alde Zaharra. Larunbata. 4.30etan.  
 Jub Ohorezko Liga: Union Txiki - Mondra.  
 Lehen Kadeteak: Arrasate - Mutriku. Igandea. 11.30etan  
 2. Kadeteak: Arrasate - Hamaika bat. Igandea. 1.30etan.  
 Infantilak: UDA - Arrasate.

**Saskibaloia**

EBA Liga: Urbina Maltzaga - C. B. Leon. Larunbata. 6.30etan. Iturripen.

Seniorrak S-23: Urbina Maltzaga - Ostadar. Larunbata. 4etan.  
 Juniorrak A: Urbina Maltzaga - Etxadi. Igandea. 11.30etan.  
 Seniorrak Emak: Urbina Maltzaga - Amigos del Baloncesto. Larunbata 6etan.  
 Kadeteak B: Urbina Maltzaga - Akelarre. Larunbata. 10etan.  
 Kadeteak Emak A: Urbina Maltzaga - Juven Ole-ta B. Larunbata. 12etan.

**Eskubaloia**

Lehen maila: Bejar - Arrasate. Larunbata. 8.30etan. Salamanca.

**Futbitoak**

Lehen Maila: Arrasate - J. Claudio. Igandea.

12etan.

Arabako Territoriala: Arrasate - Lehoia B. Larunbata. 3.30etan. Musakolan.

**Rugby-a**


Partidu berezia: gaur egungo jokalariaik - Betera-noen kontra. Larunbata. 4.30etan. Garagartzan  
 Emakumeak: Arrasate - Atletico Bera-Bera. Larunbata. 3.30etan. Garagartzan.

**Pilota**

Ohorezko Liga  
 Paletan: Idiazabal - Arrasate. Ostirala  
 Deba Arroa  
 Eskoriatza - Arrasate. Infantilak, Jubenilak eta Nagu-siak. Ostirala.

**GERRA ZIKINA = ESTATUA E.H.ren KONTRA**

**OMENALDIA**



**XABIER PEREZ DE ARENAZA SOGORB**

1984ko martxoaren 23an GALek Miarritzen erahila.

**EGITARAUA**

*Martxoak, 25 larunbata*



- **Arratsaldeko 4.30etan ATXABALPEN rugby partidua.**  
**Euskal Konbinatua (Iparraldeko eta Hegoaldeko taldeak) Arrasateko lehengo eta gaurko taldearen aurka.**
- **Arratsaldeko 7etan Herriko Plazan ekitaldi politikoa, dantzariak eta lore eskaintza.**

**PAKTOA = G.A.L.**

## SASKIBALOIA

# Jabier Perez de Arenazaren omenezko rugby partidua

## Urbina Maltzaga Iturripen

Urbina Maltzaga eta CB Leonen arteko partidua ikusi ahal izango da zapatuan 6.30etan Iturripen. Urbina Maltzagak jeitsiera fasetik kanpo geratzeko aukerak galdu ditu, dagoeneko, baina lehen fasea bukatzeko geratzen zaizkion neurkete-tan emaitza onak lortzen saiatuko da. Izan ere, 8. edo 9. postuetan sailkatuko balitz beste multzoko azken edo azken bigarrenarekin jokatu beharko luke, hau da, itxura txarrena erakutsi duten taldeen kontra.

Etxeko taldea 11. tokian dago 31 punturekin eta V. Costeira eta CB Leonek ere puntu kopuru bera dute. Hiru talde hauen arteko lehia, beraz, pil-pilean egongo da fasea bukatu arte. Urbina maltzagak bi partidua etxean jokatu ditu, zapatuan Leonen kontra eta apirilaren 9an domekan, Askatuaken kontra. Kanpoan, Concello de Portas Pontevedrako taldea izango du aurrean apirilaren 2an.

Arrasateko jokalariek ezingo dute amore eman azken partidua hauetan eta Txus Brizuela entrenatzaileak ere, ez du lan makala izango partidua irabazteko talde sendoena prestatzeko. Aurreko jardunaldian Urbina Maltzaga eta Vino de Toro, liderra izan genituen aurrez aurre eta Arrasateko taldeak galdu bazuen ere, joku ona erakutsi zuela esan behar, azken minututan markagailuari buelta emateko zorian egon zen eta. Horrela bada, Urbina Maltzagako jokalariek dakiten bezala jokatzeko badute, ez lukete arazorik izan behar 8. edo 9. tokian bukatzeko.

Jabier Perez de Arenazaren omenez, Arrasateko lehen mailako rugby jokalariek eta jokalaria izandakoek partidua interesgarria jokatu dute zapatuan arratsaldeko 4.30etan Garagartzako zelaian. Jabier Perez de Arenaza arrasatearra, rugby jokalaria izan zen eta duela 10 urte hil zuen GALEk Iparraldean.

Ricardo Ercilla rugby jokalaria beterranoak esan duen bezala, jokalaria izandakoak elkartzearen ideia omenaldia egiteko sortu bada ere, aurrerantzean rugby talde beterranoa osatu nahi dute Arrasaten. "jokalaria ginen sasoiaren rugbyarekiko sentimendua berezia zegoen Arrasaten, talde sendoa osatzea lortu genuen, nahiz eta egia esan, gure garaian askoz ere kirol gutxiago zegoen". Rugbyaren inguruan jendea lan egiteko gertu egon dadin ari dira guzti hori egiten. "Jokalaria beterranoak rugbyari jokatzeari utzi genionean, taldea



Garagartzako zelaia Arrasateko rugbyariaren topaleku.

ere alde batera utzi genuen, ez genuen jarraitu rugbyaren alde lan egiten. Talde beterranoa sortzen bada eta jende dextente elkartzeko bagara, zerbait ganorazkoa egiteko gauza izan gaitezke".

Omenaldi egunean, beraz, jokalaria gazteek eta ez hain gazteek elkarren kontra neur-tuko dituzte indarrak eta irabazteko txartel gehienak gaz-

teenak izan arren, beterrano-ek ez dute beldurrik "guk, geuk, ez dugu amore emango. Dena dela, lagun arteko partidua izatea nahi dugu, ez gaude eta sasoi-sasoi".

Jabier Perez de Arenazaren omenez jokatu den partiduan, beharbada, joku espektakularra ez da nagusituko baina ikusmina handia izango da, zalantza barik.



## Karatekak oso ondo Euskadiko Txapelketan

Gasteizen burututako Euskadiko karate txapelketan, kumite eta kata modalitateetan, seniorretan "Saioa karate taldeko" ikasleek hartu zuten parte. Gazte hauek lortutako emaitzak onak izan dira: kumitean, Iker Vitoria 60 kg-tan eta Iñaki Muñoz 80 Kg-tan 3. tokian sailkatu ziren. Iker Vitoria juniorra dela kontuan hartuta, aipagaaria da seniorretan 3. postua lortzea. Bestalde, kata modalitatean Iñaki Muñoz 6. geratu zen 19 partehartzailearen artean. Sailkapenaren arabera, esan daiteke Euskadiko txapelketan maila bikaina erakutsi dutela Arrasateko karatekak.

# “Elkorobarrutia” ahots seikotea Kanta zaharrak berreskuratu eta ‘birziklatzen’

Karlos Agirreurretak, Nestor eta Iñaki Maidaganek, Danel Goikoleak, Mikel Arregik eta Jabi Arizabaletak, “Elkorobarrutia” ahots seikotea sortu berri dute. Asmo handirik gabe hasi arren, maketa kaleratzeko asmoa dute.

— Goikobalutik, RIPetik eta “Los Pichones” taldetik zatorite. Nahasketa xeblea, ez?

— Iñaki: Bai, egia esan Nestor, Mikel, Jabi eta ni Arrasate Musikaletik atera gara eta Goikobalun gabiltza, Jabi gainera, “Los Pichones” taldeko partaide zen; Karlos ere musika munduan ibili izan da, RIP taldean; Danel bertsolaria da... beraz, bai, nahiko talde xeblea osatzen dugu.

— Asmo handi barik sortutako seikotea osatzen ei duzue. Nondik sortu zen ideia?

— Karlos: Nik ere ez dakit nola hasi ginen. Kontua da, RIPeko SHOT estudioan diska grabatzen ari ginela eta horrenbeste egunetan rock musika entzuten aspertuta geundenez, monotonia apurtzearen zozer desberdina egitea pentsatu genuela. Aspalditik nekien kanta xeble pare bat abesten hasi eta grabatu egin genituen. Gainera, Jabi Goikobalun kantatzen duten hauek ezagutzen zituen, dei egin zien eta gau pare



batean “Biguña” eta “Tócame la armonica, Kontxita, s’il vous plait” kantak grabatu genituen. Gero, Lagunilla tabernako Arxari eta Jai Zaleko Txemari utzi genizkien zintak, ordu horietarako egokiak dira eta... Tabernetan sartu eta konturatu ginen jendeak abestu egiten zituela, buruz ikasi zituztela... gu baino hobeto zekizkiten! Arrakasta izan zutela ikusita, beste kanta pare bat grabatzea erabaki genuen, “Katalina” eta “Uztapide eta Perurena”. Ikusten duzunez, zabor-biltzaile talde bat gara: abesti zaharrak hartu, “bir-

ziklatu”, produktu bat atera eta gero “a capela” kaleratzen dugu.

— Aurrez beraz, ez zineten ezagutzen...

— Iñaki: Goikobalun abesten dugunok, hau da, Nestor, Jabi, Mikel eta laurok, elkar ezagutzen genuen eta beno, “Mahoma” ere ezagutzen genuen, Goikobaluko “xoferra” izandakoa baita. Jabi Arizabaleta Goikobaluko izateaz gain, “Los Pichones” taldean egondakoa da eta “Mahoma” ondo ezagutzen zuenez, elkar-tu egin gintuen. Angel Oruna, beste lagun bat, taldean sar-

tzekotan da ere.

— Izena ere nahiko xeblea duzue: “Elkorobarrutia”...

— Iñaki: Bai, “luzaroan” pentsatu ondoren, “Elkorobarrutia” izena jarri diogu seikoteari, baina oraindik ere, proposamenak onartu egiten dira, beraz, “fan” bateren batek ideia hoberik badu, badaki nora jo. Aurrez beste izen batzuk pentsatu genituen; “Los murgalaris”, “Sei Pistols” eta besteren bat.

— Maketa kaleratzeko asmoa duzue. Noizko?

— Karlos: Ez daukagu presarik, egia esan, maketa grabatzeko asmorik ere ez genuen. Abesti batzuk gehiago grabatu eta tabernetan banatzea zen gure asmoa, baina azkenean, maketa atera-ko dugu.

— Duela hilabete gutxi gorabehera, Gaztetxean kantatu eta sekulako arrakasta izan zenuten...

— Iñaki: “Los Pichones” taldeak jotzen zuen eta ideia polita iruditu zitzaion, euren kontzertuaren tartean guk kantatzea, eta han agertu ginen. Kantuetako letrak ahaztu egin zitzaizkigun baina jendeak bazekizkienez, lagundu egin zigun. Kurioso izan zen eta dirudienez jendea-ri gustatu egin zitzaion.

— Karlos: “Los Pichones” taldearen “teloneroak” gara...

.....  
“Tabernetan sartu eta konturatu ginen  
jendeak abestu egiten zituela,  
buruz ikasi zituztela...”

**ITSASKI**

ARRANDEGIA

Arrain freskoa  
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 98 94



PEUGEOT

Salmenta eta  
zerbitzua

**IBABE  
GARAJEA**

**MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA**

Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

**HIES EKIMENA**

Astelehen, astearte  
eta ostiral

Setatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99



## LABURRAK

Kultur Astea  
Institutuan

Institutuko ikasle eta irakasleek Kultur Astea antolatu dute martxoaren 29, 30 eta 31rako. Ekintza guztiak goizeko 10.30etatik arratsaldeko 3etara izango dira. Martxoaren 29an, hainbat erakusketa, patata tortilla lehiaketa, tinte tailerra, zenbaki eta letren lehiaketa, antzerkia, patinaje tailerra eta triple lehiaketa izango dira. Martxoaren 30erako, koktel eta zumoen lehiaketa, antzerkia, arte martzialen tailerra, joku matematikoak, insumisioari buruzko hitzaldia, eskalada eta karaokea antolatu dira. Martxoaren 31an berriz, Iñurategi anaien erakusketa, argazkiarena, futbitoko finala eta musika kontzertua izango dira.

AEDren Kantu  
Jaialdia

AEDren Kultur Taldeak ekainerako antolatu duen Kantu Jaialdiaren oinarriak kaleratu berri ditu. Hamabost urtetik gorako edozein pertsonak, taldek zein koadrillak parte hartu ahal izango du, gehienez zortzi lagunek osatuta. Talde edo parte hartzaile bakoitzak bi abesti kantatuko ditu. Musika estiloa librea izango da baina kantuak euskerazkoak beharko dute izan, musika tresnaz lagunduta edo barik. Izene-matea AEDn egin behar da maiatzaren 10a baino lehen.



Aretxabaletako Galartza auzoan dago dorretxea.

## Galartzako dorretxea, monumentu zaharberritua

Aretxabaletako Galartza auzoan monumentu bat berriztu da. Galartzako dorretxea iazko ekainean konpontzen hasi eta lan horiek orain dela gutxi bukatu bezain laster, monumentu izendapenez Euskal Herriko ondare historikoaren inbentarioan sartu dute etxe hori.

Erdi Aroan eraikitako dorretxea erre egin zen orain bost urte. Hala ere, azken urteetan baserria izan zen eraikina erre baino lehen ez zegoen oso egoera onean. Erre ondoren, berriz, Aretxabaletako Udala, Gipuzkoako Diputazioa eta etxearen jabea akordio batera heldu ziren eta berritze lanak hasi zituzten. Akordioaren arabera, konponketen kostua

Aretxabaletako Udalak eta Diputazioak ordaindu dute (bakoitzak 40 milioi pta.) baina jabetzari dagokionez, dorretxearen heren bat jabearena izango da eta beste biak Udalarenak.

Egin berri dituzten obrek dorretxearen itxura aldatu ez badute ere, hormak konpondu eta sendotu egin dira eta teilatua eta barruko egitura berritu. Barrualdea oraindik ez da egokitu baina dorretxeari zein erabilerara eman erabakitzen denean hori egiteko asmoa dago. Ziur dagoena zera da: monumentua "bizia" izango dela eta besteak beste, Leintz Bailerako artxibo bateratua bertan kokatzeko asmoa dagoela.

Untzillara bidean dagoen Galartza auzoan aurki daitekeen monumentua, Galartza familiak eraiki zuen XVI. mende erdian. Erdi Aroan Euskal Herriko dorretxe garrantzitsuenetakoa izan zen eta garai hartan gotorleku funtzioa bete zuen, hau da, funtzio militarra. Orain bost urte moduan, XV. mendean ere erre egin zen baina berreraiki egin zuten. XVII. mendetik aurrera dorretxearen garrantzia txikituz joan zen eta Galartza familiak bere sortetxea utzi eta herrira joan ziren bizi izatera. Horrela, dorretxea hutsik geratu zen, denborarekin baserri bihurtu arte. Orain, berriz, monumentu izatera pasa da.

**beatriz**  
oinetakoak eta  
poltsak  
Erdiko kale, 11  
Tfnoa: 79 14 33  
ARRASATE

Altzariak  
Diseinua  
Apainketa  
**M**  
**ARENAZA**  
Bizkai, 1 ARETXABALETA  
Tfnoa: 79 08 07

**ARGI PLASTIC**  
• PVC eta Aluminioan egindako leihoak, atek, manparak...  
• Lantegitik zure etxera zuzenean  
**Eska ezazu aurrekontua  
konpromezu barik**  
  
Tailerra eta Bulegoa: Axeri, 3 Tfnoak: 77 11 30

M

ondrak bere historian zehar izan dituen taldeen artean, bat dugu hau. Ez dira denak ezagunak, eta erretratuak zatiak ere falta ditu.

Eskumatik hasita, zutik, mutikoaren izena ez zuten gogoratzen. Hurrengoa

**Luxio Zeziaga,**

**“Benantx”, ezezaguna,**

**Eleuterio Oianguren**

**“Txantxote”, Eugenio**

**Abarrategi “Martin**

**Bixi”, Damaso Azkoaga,**

ezezaguna eta “Ondarru”.

Behean eskumatik,

**“Orduña”, Eusebio**

**Ziardegi eta Jose Mari**

**Bidaburu.**

Talde honetako asko aurretik beste talde ospetsu batekoak izan ziren. “Los hijos de la noche” esaten zioten euren buruari.

14 urterekin hasi ziren kuadrilakoak futboleant, Zerrajeran lanean hasi zirenean.



Orain “Aizkora” taberna dagoen lekuan korta bat zegoen eta bertan egiten zituzten bilerak ilunkaran. Entrenamenduak gauetz izaten ziren, 7ak aldera. Alkondara eta frakak erantzi eta kantzontzilotan, San Prudentzioraino joaten ziren korrika.

Goizean ere goiz mugitzen ziren, lanera joan aurretik, 6.30etan. Eusebio Ziardegi izaten zen baloiak gordetzen zituena eta goizean esnatzea kosta egiten zitzaionez, orkatilara

soka lotu eta leihotik botatzen zuen gauean; goizean laguna etorri, tira egin eta esnatu egiten zuten.

Maalako zelaian egiten zuten entrenamendua. Gero Alen pikupeko errekan bainatu, 7.30etan etxera joan eta armosau eta 8etarako lanera, negu eta uda.

“Hijos de la noche” izena entrenamenduaren ordutegiagatik ezezik, taldekoen gautxori famarengatik ere bazen. Soldadutzara arte izan ziren

taldean.


Porteroa Eusebio Ziardegi zen. Defentsak, Luxio Zeziaga eta Mariano Garro “Pintxe”. Erdilariak Eulalio Leibar “Txanpon”, Donato Arano “Potxo” eta Jazinto Olazagoitia.

Aurrelariak: Gerardo Gordobil, Armengou, Heriberto Zeziaga, Eugenio Abarrategi “Martin Bixi”, Alejandro Altuna eta elorrixoar bat.

Talde honetatik Ziardegi da bizi den bakarra.

*Etorkizuna herri-komun*


*eta Arrasaten  
badugu  
geurea:*



**ARKO**

ARRASATE KOMUNIKABIDEAK

## Z E R N A H I A G O ?

**Iñaki Irazola****"Ikarus" delta eta parapente taldekoa**

- Noiztik Arrasaten Delta eta Parapente talde bat? Orain 8 urte hasi ginen.
- Zenbat balio dezake parapente edo ala delta batek? 250.000 eta 300.000 pta artean.
- Noiz hasi zinen parapentean ibiltzen? Duela lau urte.
- Nola izaten da "lehen aldia"? Kurtsiloaren barruan izaten da, beste batek gidatuta baina ilusio handiz.
- Nola ikusten da mundua goitik? Txikia.
- Hartu duzun altuerarik handiena? Behin 3.000 metrotik egin nuen salto.
- Izan duzu istripu larririk? Nik neuk ez, baina Arrasaten izan dira pare bat.
- Zein da salto egiteko lekurik onena bailaran? Kurtzebarri.
- Euskal Herrian beste lekuetan baino zaletasun handiagoa dago? Ez.
- Hegan egiteko paradisu bat? Huesca eta Avilako Piedrafita..
- Esamolde bat? Xebe Diez-i usten diot hori.
- Argiñano ala Subijana? Argiñano, pailazoagoa delako.
- Errealala ala Athletik-a? Osasuna.
- Lehen mailara igotzeko itxaropenik? Entrenatzaile berriarekin ez dugu arazorik izango.
- Zer oparituko zenioke Infantari? Bandera errepublikano bat.
- Noiztik belarritakoa? 21 urterekin jarri nuen.
- Makailua, jateko edo dantzatzeko? Dantzatzeko.
- Zer prestatzen du amak hoberen? Paella.

**Bizikleta martxa eta erakusketa**

"Harreman" Arrasateko Hirugarren Mundu Taldeak antolatutako herri pobreeki-ko elkartasunaren aldeko kanpaina aurrera doa. Domekan %0'7aren aldeko Bizikleta Martxa egingo da Arrasateko kaleetan zehar. Eguerdiko 12etan irtengo da Sebero Altubetik.

Martxoaren 27tik apirilaren 2ra berriz, "Herri pobretako haurtzaroa, ingurugiroa eta errefuxiatuak" izenburupean, erakusketa egongo da Monterron jauregian.

**Lana bilatzeko tekniken ikastaroa**

Arrasateko Famili eta Gizarte Heziketarako zentruak lana bilatzeko tekniken modulua antolatu du. Modulua iraupena 40 ordukoa izango da eta eskolak astelehen eta ostegunetan izango dira martxoaren 27tik aurrera. Modulua Nekane Plazao-la hezitzaileak zuzenduko du. Izena emateko zentrura jo edo 79 04 59 telefonora deitu.

*nikabideetan dago...*

**Arrasate Press**

**24.000 mila irakurle astero.**

**Arrasate Telebista (ATB)**

**Hirugarren katea audientzian.**

**Denborapasak**

**• ESAERA •**

*Asmatzen bada, asmatu da.  
Ez bada asmatzen, berriro  
hasi behar da.  
Gainontzekoak txorakeriak  
dira.*

*Manet*

**• JEROGLIFIKOA •**



**Gipuzkoako herri bat.**

**• GURUTZEGRAMA •**

1	2	3	4	5	6	7	
8							
9			10				11
12							
14				15			
		16	17			18	
19							

J. B. AGORRIA

**Horizontalak** 1. Iluntze. 8. Garatzearen egintza, aurrerapena. 9. Neu. 10. (Ald.) Frantziako hiriburua. 12. Aitzakia. 14. Animalien bil-toki. 15. Alkoholdun edari gozoa. 16. Musika-eskalako 1. nota. 18. Silizioa. 19. Gobernuan ez dauden alderdien multzoa.

**Bertikalak** 1. Rodriguez, Mondrako atzelaria. 2. Klerikoa ez dena, sekularra. 3. Itsasoan ugari. 4. Kai. 5. Beharbada, agian. 6. Metal astun eta biguna. 7. Azterketa. 11. Grina, irrika. 13. Medikuntzan erabilia den halogenoa. 17. (Ald.) Begirada

**• HOROSKOPOA •**

**Aries** Zergatik gordetzen duzu dirua komunean? Benetan arraroa zara.

**Taurus** Lehengo egunean zutaz hitzeginen aritu ziren udaltzaingoan. Zer egin duzu?

**Gemini** Etxekoak izugarri poztuko lirateke ilea moztea erabakiko bazenu.

**Cancer** Udaberria heldu denez, odola erabat nahastuko zaizu.

**Leo** Eguena ei da asteko egunik beroena. Zuretzat zein da beroena?

**Virgo** Zure bizitza jeroqlifiko bat bezalakoa da, zaila zentsua aurkitzeko.

**Libra** Gustora jaten dituzu berakatzak baina gero zure ondoan inor ez da oso gustora egoten.

**Scorpio** Zenbat sagardotegitan izan zara aurren? Nahikoa ezta?

**Sagittarius** Datorren astean ospakizunen bat izango duzu.

**Capricorn** Erraz jotzen dizu jendeak adarra, txorimalo fama.

**Aquarius** Takarraran egitea ahaztu zaizu eta agian Urkulu non dagoen ere ez duzu gogoratzen.

**Piscis** Txikitari amesten zenuena orain egi bihurtuko da.

**Etxe-Aundi**



Zuen ezkontza gurekin ospatzen baduzue,  
**EZKONTZAKO CAVA GURE KONTU**

*Anne de Cordoniu*

*Andregaiak, galdetze hutsagatik, oparia jasoko du*

**ZUEK ESAN PREZIOA ETA GUK MENUA**

Tfnoak: 78 19 56 / 78 32 90

TELEBISTAREN TXOKOA



# “Kukaratxa Motel” en antzerkietarako sarrerak

Datorren ostiraletik aurrera, Arrasatera datozen antzerki taldeen emanaldietarako sarre-  
rak irabazteko aukera izango da Kukaratxa Motel saioan. Programa honek, Udaletxeko  
Kultura Sailarekin elkarlanean, sarrerak banatuko ditu. Guzti honi buruz hitzegiteko, Jon  
Garai, Udaletxeko kultura teknikaria izan zen “Kukaratxa Motel”en joan den ostiralean,  
argazkian ikusi daitekeen moduan.

KOMIKIA



PROGRAMAZIOA



26 Igandea

21.00etan  
Mondragol. Itxaro  
Zubillagak aurkeztuta.

27 astelehena

20.00, 20.30 eta 21.00etan  
Berriak  
21.30etan  
Mondrasport

28 Asteartea

13.30etan  
Mondrasport (errep.)  
20.00, 20.30 eta 21.00etan  
Berriak  
21.30etan  
ATBketan

29 Asteazkena

13.30etan  
ATBketan (errep.)  
20.00, 20.30 eta 21.00etan  
Berriak  
21.30etan  
Pareak Jokuan

30 Osteguna

13.30etan  
Pareak Jokuan errep.  
20.00, 20.30 eta 21.00etan  
Berriak  
21.30etan  
“Trebelanak”  
Eskulana: Harriz egindako  
“pisapaperak”

31 Ostirala

13.30etan  
Trebelanak (errep.)  
19.15etan  
Marrazki Bizidunak  
19.50etan  
Kukaratxa Motel  
20.00, 20.30 eta 21.00etan  
Berriak  
21.30etan  
Astebete  
22.00etan  
Marrazki Bizidunak

SOLUZIOAK

## Etxe-Aundi

1. PLATERA

Txibito eta perretxiko entsalada  
Frijitu aukeratuak

2. PLATERA

Haragia edo arraina

POSTREA

Etxeoko gozoteria

ARDOA

Etxeoko ardo gorria eta beltza

Kafea

Guztira 2.500 pta. (B.E.Z. barne)

## HIES EKIMENA

Astelehen, astearte  
eta ostiral  
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

Horizontalak: 8. Gara-  
pen. 9. Ni. 10. Sirap. 12. Akiakula.  
14. Zoo. 15. Anis. 16. Do. 18. Sl. 19.  
Oposizio.  
Bertikalak: 1. Ignazio. 2. Laitko. 3.  
Ur. 4. Nasa. 5. Apika. 6. Bernu. 7.  
Analisi. 11. Pasio. 13. Iodo. 17. Os.  
Jeroiflikoa: Pasala.

**Etxebizitzak**

- **Nesken etxe batean logela alokatzen da.** Tfnoa: 81 22 06. Saioa.
- **Pisu bat alokatzen da Erdiko kalean.** Tfnoa: 79 18 03 / 77 03 38.
- **Pertsona bat behar da pisua osatzeko, Grosen, Donostian.** Tfnoa: 29 11 10. Jontxu.
- **Nesken pisu batean pertsona bat behar da.** Tfnoa: 77 06 25.
- **Etxebizitza alokatzen da Garibai kaleko 16. zkan.** Prezio interesgarria. Tfnoa: 79 77 86.
- **Pisua alokagai Arrasaten.** Tfnoa: 79 59 72.
- **Lokala alokatzen da Erguinen.** Tfnoa: 79 22 75.
- **Garaje plaza salgai J. I. Iñarra pasealekuan.** Prezio onean. Tfnoa: 79 07 34.
- **Aste Santurako** apartamentua alokatzen da Torrevejian (La Mata hondartzan). Tfnoa: 71 63 19.

**Lana**

- **Emakume euskalduna umeak zaindu edo interina lan egiteko prest.** Tfnoa: 79 07 73.
- **Neska bat OHOk klaseak emateko prest dago.** Euskaraz edo erderaz. Tfnoa: 79 25 09.
- **Neska esperientziaduna umea zaintzeko eta garbitasunak egiteko prest.** Tfnoa: 77 14 21. Usoa
- **Lanak makinaz nahiz ordenadorez pasatzen ditut.** Interesatuak 79 36 63 tfnora deitu eta Arantxirengatik galdetu.
- **Emakumea pertsona nagusiak zaintzeko edo etxe garbiketarako egiteko prest.** Harremanetarako dei egin 79 79 87 tfnora. (Isi Mellado).

- **Andra bat eskaintzen da** arratsalde edo aste-bukaeretan pertsona nagusiak zaintzeko. Tfnoa: 77 04 60.
- **Informatikako klaseak ematen dira.** Arrasaten, Aretxabaletan eta Eskoriatzan. Tfnoa: 77 02 59. Iker.
- **Magisteritza bukatua dut eta klase partikularrak emango nizkie** OHO ikasleei. Interesatzen bazaizu deitu 79 94 04 tfnora. Marijo.
- **Neska umeak zaintzeko neska prest.** Tfnoa: 79 90 04. M<sup>a</sup> Jose.
- **Umeak edo pertsona nagusiak zainduko nituzke.** Tfnoa: 79 39 15.
- **Neska prest,** etxe lanak egin edo umeak zaintzeko. Tfnoa: 79 96 10
- **Esperientziadun** emakumea gertu dago etxe-lanak egin eta umeak zaintzeko. Interesatuak dei egin larumbat eta igandeetan 79 31 34. Mirian.
- **Taberna edo denda batean** lan egingo nuke. Tfnoa: 77 02 70.
- **Etxeko edo atarteko** garbitasunak egiteko gertu. Tfnoa: 79 37 95.
- **Erizain laguntzailea** eta esperientziadun gero-kultorea pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Tfnoa: 79 34 53.

**Salerosketak**

- **FORD FIESTA 1.100 Trip salgai.** SS-AB. Ondo zaindua eta prezio onean. Tfnoa: 76 46 80. Gaez deitu. Anabel.
- **Roneoko etxeetan garajea alokagai.** Tfnoa: 79 36 39.
- **Garajea alokagai Uriburu auzoan.** Tfnoa: 79 90 30

- **Bigarren eskuko aitzariak salgai.** Tfnoak: 79 23 97 / 79 52 80.
- **Kanping edo karro erremolkea salgai.** Tfnoa: 79 00 99.
- **Bi garaje plaza alokatzen dira.** Tfnoa: 79 82 95. Amaia. Arratsalde.
- **BMW K-75-S salgai.** SS-AK matrikula. 27.000 km. Berria eta prezio onean. Tfnoa: 77 04 21.
- **Motorra salgai.** BMW K75 - S. Matrikula: SS - AK. 27.000 km. ditu. Berria eta merkea. Tfnoa: 77 04 21.
- **Siberiar huski zakur kumeak salgai.** Begi urdin-dunak. Oso merke. 35.000 pta. Tfnoa: 79 57 03.
- **Asolo markako** mendiko botak salgai. 41 zenbakia. Prezio onean. Tel. 79 23 60.
- **Gas naturaleko kalentadorea salgai.** Prezio onean. Tfnoa: 79 59 72.
- **Bi pare eski** eta bi pare bota salgai. 33.000 PTA-gatik. Tfnoa: 79 25 31. Gaez.
- **Gaztainondo egurrezko "armairu zubia"** saltzen da bi ohekin. Prezioa erabakitzeko deitu 79 44 00 tfnora.

**Denetarik**

- **Musika taldeak** lokal bat alokatu nahiko luke. Tel. 79 13 26.
- **Korreos-eko** oposaketak prestatu nahi badituzu deitu 76 80 53 tfnora. Goizeko 10etatik arratsaldeko 3ak arte.
- **Gay/lesbiana bazara,** lagun taldea osatzeko-tan gaude. Elkarrekin primeran pasa dezakegu: jaiak, mendia, afariak... Zeren zain zaude? Idatze lehebat lehen. 128 postakutxa. 20700 Zumarraga.
- **Historialari bat** eskaintzen da genealogia egiteko. Tfnoa: 88 30 72. Arkaitz. Iluntzeko 8etatik aurrera.

**Aste Gazte**

**Bekak**

- Oñatiko Soziologia Jurdiko Instituto Internazionalak "Renato Treves" beka antolatu ditu, bai masterra bai doktoregoa egiteko. Soziologia ikasketak eta Zuzenbide ikasketak dutenei zuzenduak. Epea: maiatzak 30.
- "Banco de España" k atzerrian ikasketak hedatzeko hamabi beka deialdia egin du. Gaiak: teoria ekonomikoa, informatika eta matematika zientziak. Lizentziatuei nahiz karrerako azken urtean daudenei zuzenduta. Epea: apirilak 12.
- Arte Ederretako Zuzen-

daritza Orokorrak, Arte Plastikokoetako sorkuntza Espainiakoa ikastetxean Parisen beka deitu du. Lizentziatuei nahiz sormen plastikoan esperientzia dutenei zuzenduta. Frantsesa menperatzea ezinbestekoa da. Epea: apirilak 4.

**Lana**

- Herrizaintzako Sailak hainbat lanpostu kaleratu du. Zentruko bost langile, arotz bat, elektrizista bat, mantenimendu eki-poaren arduradun bat, instalazioetako lau mekaniko, estandarizazioko mekaniko bat, zentruko lau mekaniko, armari bat, mekaniko bat, biltegiko ardura-

dun bat, mantenimendu saileko arduradun bat, parke mugikorren arduradun bat, psikologo bat, komunikazio eta segurtasun arduradun bat, M.E.G.E. teknikari bat, erosketa arduradun bat, zentruko administrari arduradun bat, administrari bat, telefonista bat, operadore programatzaile bat, inplantatzaile bat, hiru programatzaile, hiru analista programatzaile, sei analista, sindikal harreman arduradun bat, kontratazio arduradun bat, arduradun juridiko bat, hiru letratu. Epea: apirilak 3.

**Ikastaroak**

- Argazkigintza. Sakontze maila. Maiatzaren 8tik 25era. 7.15etatik 9.15etara. Matrikula 3.500 PTA. 2.000 PTA ikasle eta langabetuentzat.

**"Bazkalondoko beroak luze eta nagi egiten du denbora, haurtzaroan bezala, siesta garaia zeinahi ametsentzat ohandte bihurtuz"**

**ELIXABETE GARMENDIA. "EGUNKARIAN"**



**Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnoa: 77 00 65**

# Jose Aranzabal



## SUKALDE ALTZARIAK

Bañez Doktorea, 2  
San Andres auzoa.  
ARRASATE

Tfnoa: 79 18 92

**FAGOR** 

Banatzaile ofiziala



## ELEKTRATRESNAK

Iturriotz, 15  
ARRASATE

Tfnoa: 79 15 16

TB • BIDEO • HI-FI • ELEKTRAGAILUAK

# Errealitateak fikzioa gainditzen duenean.



## Escort'95 berria.



Batzuetan errealitateak espektatiba guztiak gainditzen ditu. Baita Escort'95ak ere. Automobil klase berria. Oso estilo jakinekoa. Ibilian, fikziozko munduan zaudela usteko duzu bere ixiltasuna eta dardara eza direla eta. Baina errealitatea da. Suspentsio sistema berriak eta direkzio lagunduak, suabea eta arina egiten dute bidetan Escort berria.



Ford  
Segurtasuna  
Denontzat

Bere segurtasun sistema aktibo eta pasiboaz gain, gainera, lapurketen kontrako finkatzaile elektronikoko sistema berria. Escort berriak Zetek 16V. edo Turbodiesel motore aurreratua ditu eta aukera zabala 3, 4, 5 ate eta Nomade eta Cabrio modeloetan. Proba ezazu zure Banatzailean. Orduantxe ulertuko duzu errealitateak zergatik gainditzen duen fikzioa.

Informazioa eta aprobak 900 51 51 51 tfnoan

**MUGARRI**



Araba Etorbidea, Z/g  
Tfnoa: 79 07 44 / 54  
Faxa: 79 62 54  
ARRASATE